

2003ko urtarrila

12. zenbakia

Aikor!



txorierriko aldizkaria



**Txorierritarrek ere
galipot artean**



TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR




Larrabetsuko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 558 172
Faxoa: 944 558 172



Zamudoko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 520 826
Faxoa: 944 521 349



"Gorandogana"
Herri Ikastetxea (Sondika)
Tel.: 944 531 020
Faxoa: 944 531 020



Dertoko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 541 246
Faxoa: 944 541 246



Lezamako Herri Ikastetxea
Tel.: 944 55 119
Faxoa: 944 555 164



"Txorierri" R.H.I. (Derto)
Tel.: 944 543 258
Faxoa: 944 544 262

MATRIKULA OTSAILEAN IZANGO DA

Lagun ikusezina

Hansek Madame Tetralliniren zirkuan lan egiten du. Enanoa da, eta bere zirkuko lagun guztien antzera, deforma. Friedari eman dio ezkon-hitza, baina Hansek Cleopatra trapezista liraina maite du. Cleopatrak muzin egiten die Hansen maitasun adierazpenei, harik eta egun batean, Hans fortuna itzelaren oinordekoa dela dakien arte. Orduan, Hansekin ezkondu, pozoitu eta haren fortuna harturik, zirkuko indartsuenarekin, alegia, Herculesekin ihes egitea deliberatzen du. Friedaren zorigaitzerako, eta hurbilekoen abisuei entzungor, Hans itsu-itsuan ezkontzen da Cleopatrarekin.

Ezkon gaueko afarian, Cleopatrak Hansen lagun deformeekeko duen ezinikusia agertzen du, baita Hansekiko berarekiko ere. Barre egiten die deformeak direlako.

Jada senar-emazte direlarik, Cleopatrak egunero pozoitu dosi txikiak ematen dizkio bere senar enanoari. Hansen lagun deformeeke, oster, Cleopatraren jukutriaren berri izango dute, eta ekaitz beldurgarriko gau batean, Cleopatra ederra, izaki itsu, hanka bako

eta animalien hizkerakoa bihurtzen dute, baita Hercules urretxindortu ere.

Todd Browningen "Freaks, la parada de los monstruos" filmaren gutxi gorabeherako laburpena da. Badira pare bat urte ikusi nuela eta kalean eskale besamotzen bat diru eskean ikusten dudanero oroitzen naiz filmaz. Gogoan izaten ditut enanoak, hanka eta beso bakoak, ahizpa banaezinak, itsusietan itsusienak, halabeharrez zorigaitzekoak direnak. Gogoan dut euren artean bakarrik ulertzeko moduko hizkera sortu behar izan zutela, higuinarriz zituen mundutik babesten zituena, zirkuan bertan ere baztertuak baitziren. Eta gura barik, euskaldunok antzekotasunik badugula iruditzen zait, batez ere hizkera propioari dagokionean, neronek bederen, askotan pentsatu izan baitut berandu orduko haurtzaroko lagun ikusezinekin egin beharko dudala euskaraz. Halakoak etortzen zaizkit gogora Lezamatik Deustura bitarteko bidea trenez egiten dudanean.

Eguneroko joan etorri horietako batean Fernando ezagutu nuen. Fernando "jentile da" esango zukeen gure amama

Pantxikek ikusi orduko. Metroa eta laurogeita luzea, ehun eta hogeit bat kilo astun, Fernandok filme hartako Herculesenak ere erraz egingo lituzke. Ostera, haur besoetako gauzeztanenari ere ez lioke gureta minik emango. Eta Fernandok ez dio inori beldurrik ematen. Trenean sartuaz batera norbaiten ondoan eseri eta harekin lagun-kiro berba egitea desiratuko du; bere burua berba ozen eta pausatuz aurkeztu eta Olako geltokian haur eta gazteek gorputza, bere jentil gorputza, harrika ubeltzen diotela kontatuko du eta ez duela ulertzen zergatik eman gura dioten min. Ziurrenera bidaideak beste alde batera begiratuko du, mespretsuz, edo Fernandoren berba egiteko erari barre egingo dio, edo beste barik, lekuz aldatuko da. Orduan Fernando Pedrokekin hasiko da berbetan, ahotsa aldatuz, eta esango dio bakarrik sentitzen dela eta dauden "kokretarik gozoenak gure amama zenak egiten zituenak" zirela "pernilizekokoak". Eta Pedrok berba xume eta goxoak itzuliko dizkio eta Fernando ederto baten konponduko da berarekin, bere buruarekin, azalpenik eman barik baztertu dute-nengandik salbu.

Testua: Gotzon Barandiaran




Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren, Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Mari Tere Onaindia, Belen Gana, Juanxu Bilbao, Amagoia Guezuraga, Atotz Goikoetxea, Juan Luis Goikoetxea.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Oihana Astobieta, Zorritzetan, Puri Martinez, Lourdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi), Gotzon Barandiaran, Aritz eta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Jagoba Zallo
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi
Maketatzailea: Ainara Torres
Inprimategia: Gertu
Ale kopurua: 4.750
Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxiaren erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria

ZER

NON

| | |
|-------------------------------------|----|
| -Eritxia..... | 3 |
| -Aikor!-i gutunak..... | 4 |
| -Laburrak eta albisteak..... | 5 |
| -Jainkoaren egarriz erromes..... | 10 |
| -Beñat Aiertza..... | 12 |
| -Aikor! sariak..... | 13 |
| -Derioko boluntarioak Galizian..... | 16 |
| -Gazteak..... | 19 |
| -Ipar-Alde abesbatza..... | 20 |
| -Baserri mundua..... | 22 |
| -Teknologia..... | 23 |
| -Berba lagun..... | 24 |
| -Bertso zaharrak..... | 26 |
| -Txoriemitarak munduan..... | 27 |
| -Sukaldaritza..... | 28 |
| -Denbora pasa..... | 29 |
| -Agenda..... | 30 |

Gutunak

Zure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu,. Ahalik eta eritxi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Tootan, Aretxalde1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Larrabetzun, umeak bai, baie hartzaindegirik....

Larrabetzuk, 2001ean, Bizkaiko jaiotze tasarik altuena izan deu, 11 jaiotze.

Hara! 2002an, dagoeneko, 23 jaiotze egon dira eta 2003rako, bidean eta momentuz, hainbat ume dabil heritik, alai, irripartsu, euren amaren mantapean.

Geur egun, Erkidego Autonomoan hartzaindegiak arautzen dituen 1004/1991 Errege Dekretuak ezartzen dauzen baldintzak kontutan izanda, Larrabetzun, 0-1 urte bitartean 3 ikasgela egon beharko ziren. Eta 1-2 urte bitartekoetan bi.

Hau guzti hau, inguruko herrien (Lezama, Morga,...) egoera demografikoa kontutan izan barik. Ederto.

Gure herrian, ordea, egoera kafiakioa suertatzen ari jaku. Nahian gabiltza eta ezinagaz topetan gara, aharitoak lez, talka egin ez. Ezinagaz, izan be, logika naturalak, tamalez, ez daukelako agintzen paraje hauetan.

Umeek hainbeste maite dauriez parkeko txinbo eta txirratik hurrin dauzelako egunaren zatirik handiena. Hurrin.

Goizero, kotxearen burrunbek Zornotza, Galdakao, Basauri, Mungia, Bilbo edota inguruko (?) hartzaindegietara eroaten dituez. Ondorengo urteotan euren eskola izengo dan pareta eta usainetatik hurrin. Oso hurrin.

Hurringo urteotan euren eskolakide izengo ez diren umeekaz olgetan dabilta. Pozik, alai. Banaketa etorriko jakie gero. Bi urte bete eta ostean Larrabetzuko eskolako parte iziteko aukera izengo daurielako. Lehenago ez. Antza. Pedagogikoa, sano pedagogikoa.

Larrabetzuko Alkateak ezetz dino. EUDELek ebatzita. Gulako beste udalerri batzuk (Muxika, adibidez) baietz dinaurie. EUDELen egon arren.

Eusko Jaurlaritza Udalaren menpe dau-

zen lokalak eraldatu eta hartzaindegi bihurtzeko dirulaguntzak (1.322.227 euro) emoteko prest azaldu da. (2002ko agoztuaren 30eko EHAA, 164.zk, 15625. orr.). Baie.... Hau guri dagokigu, hau zuoi,... Total, etxean ittokinak!

Eta gu, arterauko maitzetik honen inguruan hausnartzen, informazioa biltzen eta plangintza bat egiten dihardugu. Larrabetzuko alkateagaz (Tomas Ordeñana jauna) birritan batzartu gara. Bere iritzia adierazi deusku: ez.

Ez, hartzaindegia non izan daitekeen aztertzeari. Ez, hartzaindegiaren proiektua aztertzeari. Ez, proiektu honen aurrekontua argitzeari. Ez, Eusko Jaurlaritzak emon ahal dauzen dirulaguntzak zehazteari. Ez, geure umei. Ez, bere udalerriko etorkizunari. Arrazoi bakarra deko, ordea. EUDELek holan dino. Eta zentzuak? Eta logikak? Eta datu demografikoek? Eta langabezi edo eszedentzia behartuan dauzen gurasoek, ume desplazatuen gurasoek eta itxaroten ari diren gurasoek, zer dinaurie? Ez dogula ulertzen.

Ez dogula ulertzen edozein proposamen aztertze horrelako jarrera azaltzea. Ez dogula ulertzen irtenbide ezberdinak izan leikezan egoerari irtenbide bakarra emotea: ezetz. Ez dogula ulertzen zergatik espero geinken hain gutxi gu guztiok ordezkatzeko gaituen alkatearengandik, guztiona dan udalxetik.

Babes barik aurkitzen gara. Bitarteko guztiak dekoguzen arren: bete behar diren baldintzak zehaztuta, Larrabetzuko Eskolako Gurasoen Elkartearen zein Eskola Kontseiluaren oniritzia, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza, -inportanteena- umeak,... eta ezin.

Baten batek ulertu ezinezko kontu honi

arrazoirik topetan badotsa, arren, erruki, otoi! Azaltzeko, geuretzako nahikoa gatxa baita ulertzea.

Larrabetzuko haur-eskolaren aldeko taldea

Arriskua eta zortea

Ezin gara kexatu, oraingo honetan eguraldiak oso ondo tratatu gaitu eta mendebaldetik datozen orbanak iparrera doaz hego haizeak jota. Hau zortea!!

Hau ez da zeozer berririk, Bizkaiko golkoaren alde honetan bizi garenon artean sortzen doguzen kalte ekologikoa, kutsaduraren kasu, Atlantikotik datozen korronteak lagundurik Akitania eta Britainia aldera joaten dira. Esaterako, hango hondartza eta labarretan agertzen dira Eroskiko poltsak. Gurea zortea, korronteak eta haizeak gure alde.

Eta kontra? Hasteko gure bizimodu sostengaezina. Galipotak beldurra emoten deusku, baina gero eta petrolio gehiago gastatzen dogu. Etxean ez dekogunez, kanpotik ekarri behar da eta Petronorrera datozenekaz batera laster Abrako superportuan gas metanoarekin be-tetako itsasontzi erraldoiak ere izan-go doguz zentral termikoetan erretzeko. Arriskuaren gizartean bizi garela badakigu, baina gurago dogu beste aldera begiratu eta zorteari kandelak ipini. Noiz arte?

Iñaki Barcena
(Ekologistak Martxan-Larrabetzu)

COPISTERÍAS PROPLANOS



ACTIVIDADES DE COPIADO
- COPIADO DE PLANOS GRAN FORMATO
- COPIADO DE DOCUMENTOS DE PLANOS
- COPIADO DE FOTOCOPIAS DE PLANOS
- COPIADO DE PLANOS DE PROYECTO
- COPIADO DE PLANOS DE PROYECTO
- COPIADO DE PLANOS DE PROYECTO
- COPIADO DE PLANOS DE PROYECTO
- COPIADO DE PLANOS DE PROYECTO
- COPIADO DE PLANOS DE PROYECTO

SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS
DE INGENIERIA Y ARQUITECTA
- RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO

SECCION
CONSEJO DE ADMINISTRACION
DE EMPRESAS

SECCION
CONSEJO DE ADMINISTRACION
DE EMPRESAS

SECCION
CONSEJO DE ADMINISTRACION
DE EMPRESAS

SECCION
CONSEJO DE ADMINISTRACION
DE EMPRESAS

Gabonetako dantza agerraldia Derion

Urtero legez, joan zen abenduaren 29an Derioko Lainomendi taldeak, udalaren laguntzarekin, dantza agerraldi ezin politagoa antolatu zuen Derion. Honela bada, eguerdiko 12etan hasita Astrabuduako Trabudu, Erandioko Uztargi, Sondikako Goraintzaileak, Zamudioko Hiru Bat, Algortako Agurra, Erromoko Sasi Eskola eta Derioko Lainomendi taldeek ordubete eta erdiko dantza saio bikaina eskaini ziguten jendez gainezka zegoen Derioko kiroldegian.

Kalejira labur baten ostean, 250 dantzari inguru bildu ziren kiroldegian eta ez zuten hutsunerik utzi pistan, ezta ikusleon begietan ere. Euren dantza ederrek jendearen txalo zaparrada sortzen zuten behin eta berriro, eta eurekin etorritako txistulariek eta soinu joleek, dantzarako jotzeaz gain, bete egiten zituzten dantzaldi arteko tarteak ere. Bildutako ikusleoi, oporrekin gertatzen zaigun bezala, labur egin zitzaigun ekitaldia.

Giro benetan aparta han bizi izan genuena, eta agerraldi bati eman

dakiokeen mailarik gorenena emateko Lainomendi dantza taldeko neska-mutil nagusiek Gasteizeko Balsa eskaini ziguten, denon harridurarako.

Hangoa ikusita zorionak eman behar dizkiegu hainbat ordu lanean dihardu-

ten irakasleei, dantzariei eta, oro har, Lainomendi taldeari, euren lanarekin gazteak zein nagusiak jatortu egiten dituztelako, gure kultura goratzen dutelako eta gure euskara lanabestzat hartzen dutelako. Zorionak eta datorren urtera arte.



Asua ibaiaren ur beltzak Lamiakoko estaziora kanalizatzeko lanak hasi berriak

Bizkaiko Foru Aldundiak Asua ibaitik datozen ur beltzak Lamiako-Galindoko garbiketa-sistemara kanalizatzeko lanak hasi zituen hilaren 17an. Urtebete eta erdi barru beharrak bukatuta izatea espero da.

Proiektuak 12 milioi euro baino gehiago balio izango du eta bi zatitan jorratuko da. Alde batetik, Txorierriko interzeptorearen bigarren fasea, Sangroiz eta Arriaga bitartekoa, egingo da. Bi kilometroko luzera izango du eta Sondika, Erandio eta

Loiuko ur beltzak jasoko ditu. Beste alde batetik, bigarren zatian, interzeptorea Sangronizetik Lezamara eta Udondotik Lamiakora jadanik eraikitako zatiekin lotzeaz gainera, ura ponpatzeko gunea egingo da.

PIPIKA IKUSLAN
 Piztasun, gaitasun,
 kulturala, ikuslan,
 eguraldi, elkarrekin,
 kulturagaitasunak

Valdeleku, 7/Barrio, 71-50191-71-50191-001

ALBERTO
 Instalaciones de BOM-Bombas, S.L.
 Tel: 945 26 06 06
 48911 BILBAO (Bizkaia)

ARTIZAR
 EMPRESA DE SERVICIOS INDUSTRIALES

48900 BILBAO, BIZKAIA
 TEL: 94 50 01 00

CIANOPLAN SA
 global printers

11010 BILBAO, BIZKAIA 48100 BILBAO, BIZKAIA
 Tel: 944 20 97 91
 944 20 97 97
 E-mail: info@cianoplan.es

- Inprimaketa eta plasta kopiatuak.
- Kartelak koloretan eta A3 b.
- Digitalizazio eta berrinformatio, automatizazio eta laguntza.
- Fotokopiatu koloretan eta A3 b.
- Era desberdinetako koadernaketa.
- Plastikaketa.
- Era ezberdinetako.

Badator korrika



Aurten apirilaren 4tik 13ra izango da Korrika 13. Maulen hasi eta Iruñeara Euskal Herrian zehar 2000 kilometro euskararen testigua esku esku pasatuz. Txorierritik apirilaren 8an, gauez, pasako da.

Esan beharrik ere ez dago, ondo daki-gulako, korrika karrera bat baino askoz gehiago dala. Euskararen aldeko ekimen kultural handia; herririk gehienetan hainbat kultur ekitaldi egiten dira horren omenez edo horren atxakian eta, horrezaz ganera, kilometroak erosituz edo bestelako ekimenetan parte hartuz, euskararen aldeko gure aportazioak bideratzeko aukera ezin hobea dogu.


Aurtengo korrikaren helburuak gauzatzeko aurrekanpaina berezia egin beharrean gagoz. Izan ere, azkenaldian euskarari eta AEKri egindako erasoek asko kaltetu dabe koordinakundea, AEK itolarri ekonomikoan itxiz. Aurtengo Korrika antolatze-ko, beraz, herritarren laguntza behar beharrezkoa dau AEK-k.

Korrika Laguntzailea izeneko kanpaina berezia ipini dogu martxan, Korrika 13 antolatzen lagunduko deutzona AEK-ri. Aurrekanpaina hori, norbanakakoen inplikazio pertsonala eskatzen dauan ekimena, martxan dago abendutik aurrera.

Korrika Laguntzailea izeneko kanpaina zertan datzan azalduko dogu: hamar euroren truke, languntzaileak metro sinboliko bat eta Korrika 13ren pina eskuratuko ditu. Ganera, nahi izan ezkerro, bere datuak emango ditu atara barri dogun Korrika Laguntzailearen txartela eskuratzeko eta txartel horregaz hainbat denda eta zinematlan deskontuak izango ditu.

Aurten, bada, Korrika Laguntzailea kanpaina berezian parte hartuz, zuk zeuk be lagundu zeinke Korrika 13 aurrera ataraten.

Txorierritik apirilaren 8tik 9rako gauean, goizaldean, sartuko da Loiu eta Sondikatik. Herri guztiak zeharkatu ostean goizaldeko 3etan Fikarako bidea hartuko du. Egingo diran kultur ekimenak eta bestelako datuen barri hurrengo baten izango dozue.



Testua: Belen Gana

Arrekikilik Topagunean sartzea erabaki du

Arrekikili euskara elkarteak urteko batzarra egin zuen urtarrilaren 10ean, barikuz. Iazko hainbat balantze egin ostean, taldeak aurreantzean sakondu beharreko esparruak azertu ziren jendearen artean. Besteak beste, Euskal Herriko euskara elkarteek osatzen duten Topagunea federazioan sartzea erabaki zen. Plan estrategikoak, herriko dinamika eta, oro har, euskararen aldeko lana eduki zituen ardatz bazkideen batzarrak.

Josu Ginea Frantzian atxilotu eta Fresnesen espetxeratua

Santo Tomas egunean egin ziren publiko egun bi lehenago Frantzian atxilotutako euskaldunen izenak. Ezusteko ederra hartu zuen batek baino gehiagok, euren artean Josu Ginea larrabetzuarra zegoela jakitean. Asteburu osoan, hainbat mobilizazio jendetsu egin ziren Larrabetzun. Herriko, Txorierriko eta inguruko herrietako jende ugari batu zen Gineari elkartasuna adieraztera. Egun batzuk atxilotuta egon ostean, Fresnesko espetxean sartu zuten lehenago EHko zinegotzi izandako gaztea.

Gabonetako bertso saioa eta Olentzero ekitaldirik arrakastatsuenak

Gabonak joan ziren, eta ekitaldi mordoan izan zen Larrabetzun. Horien artean arrakasta gehien eduki zutenak, Olentzero eta bertso saioa. Larrabetzuko Olentzeroak gero eta harrera hobea du, eta asko dira beste herrietatik bertora hurbiltzen direnak. Biharamunean, abenduak 25, Hori Bai gazte elkarteak urteroko bertso saioa antolatuko duen, hamargarrena. Taula gainean, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Fredi Paia eta Etxahun Lekue bertsolariak. Aurreko urteetan baino jende gehiago hurbildu zen, gainera, saiora. Giro beroa.

Testuak: Patxi Gaztelumendi

Zeruzema Jatorria

Comunicación social, 70
 48100 BILBAO (495 87 84)
 Fax: 94 495 58 78
 ADEAJ 20090004 (Gobierno)

ROBLES TRACTORES ADELARTE

Edificio Peralta - Peralta, 200
 48100 BILBAO (495 87 84)
 Teléfono: 94 495 87 84
 Fax: 94 495 58 78
 e-mail: robles@adelarte.com
 www.adelarte.com

GAMINIZ RESTAURANTE

AVENIDA DE LA UNIVERSIDAD, 12, 48100 BILBAO
 Teléfono: 94 495 87 84
 Fax: 94 495 58 78
 e-mail: gaminiz@adelarte.com
 www.gaminiz.com

Derioko xake taldeak II. aldi bereko partida antolatu zuen

Aurreko edizioaren arrakasta ikusita, Derioko Xake Taldeak bigarren aldi bereko xake partida antolatu zuen Gabonetan. Gonbidatua Carlos Varas jokalaria txiletarra izan zen. Varas nazioarteko xake-federazioko irakaslea da eta munduko olinpiadetan hartu du parte. Gainera, Txile nahiz Euskadiko txapelduna izan da. Hark esandakoaren arabera, "iazko edizioa erreferentziatzat hartuta, parte-hartzaileen jokoak hobera egin du". Maisuari irabaztea zaila izan arren, azkenean Jose Mari Barcina Xake Taldeko kideak lortu egin zuen.

Ekitaldi honen bidez, taldeak helburu bi bete zituen: alde batetik, xakea herrita-

rrengana hurbiltzea, eta, bestetik, jokalaria berriak bereganatzea. Eta, izan ere, halaxe izan zen, harrezkero klubak taldekide berria dauka eta.



Bilbao-Bilbao martxa zikloturista Txorierrin

Martxoaren 23an, Txorierritik pasatuko da Bilbao-Bilbao martxa zikloturista. Proba hori Bilbon hasiko da goizeko 8etan, eta, Erandiotik Plentziara bitarteko zatia egin ostean, Mungiara abiatuko da. Butroe eta Unbetik igaro eta gero, txirindulariak Zamudiora jaitsiko dira. Parke Teknologikoan zerbait jan eta indarrak berritzeko gunea prestatuko da. Ondoren, Artebakarratik Mungiara itzuliko dira. Fikatik eta Astorekatik pasatu ondoren, Larrabetzutik igaroko dira, handik Bilboko helmugara joateko.

Mungiko San Antontxueta loiuztarrak txapeldun!

Pasatu barri dizen San Antontxueta Mugin egin zan azokan, loiuztarrak izen ziren nagusi Euskal Herriko Odoloste eta Txorizoen Lehiaketan. Mungiako Merkatarien Alkartek orain 7 urtetik antolatuten dauen azoka honetara 43 txorizo egile etorri ziren Euskal Herri osotik. Guztien artean Loiuko Ana Sistiagan txorizoak aukeratu eudiezan onenak lez. Berdurezko odolosteetan Jose Luis Urrutikoetxea izen zan irebazle, hau be loiuztarra. Baie, dude barik, txapeldunetan txapeldunena Jose Luis Bilbao izen gendun. Loiuztarra bera. Laskitortako semea. Txorizoatan hirugarren lotu zan, berdurezko odolosteetan bigarren eta arrozako odolosteetan lehelengo lotu zan! Antza, Euskal Herri osoan ez dau Loiuu baino txorizo eta odoloste gozoaurik. Zorionak hirurori!

Testua: Oihana Astobieta

Sendabelarren ikastaroa eta estresaren kontrako ikastaroak antolatu dira Sondikan

Otsailaren 3tik apirilaren 7ra bitartean estresaren aurkako ikastaroa izango da Sondikan. Bertan gauzen alde ona ikusten erakutsiko da eta erlaxatzeko eraiketak egingo dira. Orduetgia 19:15etatik 21:15ak bitartekoa izango da, astelehenetan. Ikastaroa egiteko 15 euro ordaindu beharko da. Antolatzaileak Sondikako Udala eta Txorierriko Mankomunitateko Drogamenpeketasunen Prebentziorako Zerbitzua izango dira.

Beste alde batetik, otsailaren 4tik martxoaren 25era bitartean, osasunari eta sendabelarrei buruzko ikastaroa egingo da. Ikastaroak hamar saio izango ditu: zortzi teoriko praktikoak izango dira, eta beste bietan landa-lana egingo da. Orduetgia 19:15etatik 21:15ak bitartekoa izango da, Kultur Aretoan. Sondikakoek 24 euro ordaindu beharko dute, eta beste herrikoek, berriz, 30 euro. Ikastaro hau Foru Aldundiaren laguntzarekin egingo da.

Derioko euskara taldea

Aurreko alean aipatu zenez, euskara talde bat sortzekoa da Derion. Taldearen aurkezpena laster izango da, otsailaren 26an edo hor inguruan. Bitartean, martitzen guztietan, 7etan, kultur aretoan biltzen dira. Ateak zabalik daude parte hartu gura duten guztientzat.

LA BARRERA
 BARRERA
 BARRERA
 BARRERA

BARRERA
 BARRERA
 BARRERA
 BARRERA

CRESTEN IAZI
 Cresten Iazi
 Cresten Iazi

BAR TXIKI
 Bar Txiki
 Bar Txiki

SAN SIDRO
 San Sidro
 San Sidro

LEJARRENE JATETXEA
 Lejarrene Jatetxea
 Lejarrene Jatetxea

Mikel Zarateri omenaldia

Datorren urteko apirilaren 10ean beteko dira hogeita bost urte MIKEL ZARATE Lezamako euskal idazlea hil zala, gazte-gazterik, oraindino onenean egoanean, berrogeita sei urte egin barri. Gutariko askok, bere herrikoak edo auzokoak garelako, ondo ezagutu genduan; beste askoren irakasle eta maisu be izan zan, eta idazle ona ez-ezik, abadea eta gizon jatorra be bai. Okerraren bildur barik esateko moduan gara, batez be ezagutu ez zenduen gazteoi edo bakarrik bere liburuen bitartez ezagutu zenduonoi, Mikel Txorierriko euskal idazlerik handienetarikoa izan dala, handiena ez bada izan, orain arte behintzat.

Hori guzti hori dala-ta, Lezamako euskaltzaleok pentsatu dogu bere heriotzaren hogeita bosgarren urteurrena aukera ezin hobea litzatekeela omenaldi eder bat antolatzeko, hain zuzen be Mikel euskal idazlea gogoratzeko, Mikel herriko gizona eta euskaltzale amorratua gogoratzeko, eta Mikel eliz-gizona gogoratzeko; eta bide batez, bere zintzotasuna, euskaltzale-tasuna eta lan oparoa "aprobetxatuz" Txorierrin euskera indartzeko eta prestijiatzeko.

Egin gura deutsogun omenaldiaren lehenengo zirriborroa joan dan abenduaren 19an aurkeztu genduan, Aikorren urtebetetetze jai egunean. Hasi barri dagoen 2003 hau daukagu oso-osorik ekitaldiak prestatzeko, gero 2004ko urtariletik apirilera guzti horreek plazaratu ahal izateko. Ordubera lagun askok emon deusku berbea zeozertxo egin gurean, bai erakunderen baten izenean edo bai per-



tsona legez: Lezamako Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Labayru, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritz, Elizbarrutia, Kukubiltxo, Mendebalde Kultur Alkartea... eta abar luze bat, batzuk aipatzearen eta partikularren izenak beste baterako itxita.

Baina, eta hauxe da inportanteena, egitasmo hau azpimarratu gura genduke: omenaldia edonorentzat zabal-zabalik dagoela, parte hartu gura izan ezker. Azken baten, Mikel Zarate danona dalako, Lezamarrona zein Txorierritarrona zein euskaldun guztiona, ia danon artean ondo merezitako omenaldi eder bat egiten deutsogun. Beraz, zeozer pentsatuta badaukazue, gauzarik apalena bada be, jarri Aikorregaz edo Zorritzketanegaz kontaktuan.

Izango dozue hileroko leiho honen bitartez Mikelen eta bere omenaldiaren barri.

Testua: Zorritzketan

Txorierriko ipuin lehiaketaren sari banaketa

Joandako abenduaren 19an, Txorierriko 5. ipuin lehiaketaren sari banaketa ospatu zen Loiuko liburutegian. Edizio honetan, 370 idazlek, 5 mailatan bananduta, hartu zuten parte. Maila bakoitzean bi sari eman baziren ere, askok lortu zuten akzesita. Izan ere, zaila izan zuen epaimahaia irabazleak aukeratzea. Maria Fernandezek, Udal euskaltegiko zein AEKko irakasleak, eta Lurdes Lasuenek, euskara teknikariak, osatu zuten epaimahaia. Sariak banatu ondoren, han bildutakoek Behi bi's "Bertsotas" ipuin kontalaria eta antzerkia ikusi ahal izan zituzten.

Udalerriaren garapenerako azterlana aurkeztu da Loion

Joandako urtaririlaren 21ean udalerriaren garapena lortzeko kontuan hartu beharreko jarraipideak azaltzen dituan azterlana aurkeztu eban Loiuko Alkateak. Egindako ikerketaren arabera, auzokide eta enpresa barriak erakartzeko beharrezkotzat jotzen dira bizimodu-maila finkatu eta hobatzea. Era berean, lurraren erabilera egokitasunez antolatzea eta auzoen arteko loturak hobetzea gomendatzen dira.

Parte hartze handia "Gutuna Olentzerori" lehiaketan

Zamudioko Lagatu Euskera Alkateak antolatutako "Olentzerori Gutunaren" IV. Lehiaketan 6 eta 12 urte arteko 69 herriko umek hartu eban parte. Sari banaketea abenduaren 30ean egin zan Zamudioko kiroldegian eta bertan Pello Añorga ipuin kontalaria ikusi eta entzuteko aukera izan eban.

MIKEL ZARATE
Lezamako
Udala
Lezamako
Udala

Ordu-Ordo, e.a.

MIKEL ZARATE
 Lezamako euskal idazlea hil zala, gazte-gazterik, oraindino onenean egoanean, berrogeita sei urte egin barri. Gutariko askok, bere herrikoak edo auzokoak garelako, ondo ezagutu genduan; beste askoren irakasle eta maisu be izan zan, eta idazle ona ez-ezik, abadea eta gizon jatorra be bai. Okerraren bildur barik esateko moduan gara, batez be ezagutu ez zenduen gazteoi edo bakarrik bere liburuen bitartez ezagutu zenduonoi, Mikel Txorierriko euskal idazlerik handienetarikoa izan dala, handiena ez bada izan, orain arte behintzat.

Udala: 945 300 100 | Fax: 945 300 100

Ber-Restaurante

Balguri

1. Espainiarren
 2. Mexikar
 3. Japoniar

Pol. Ind. B. T. 10000, 48900, 48900, 48900

ATARIKOH

1. Espainiarren
 2. Mexikar
 3. Japoniar

Pol. Ind. B. T. 10000, 48900, 48900, 48900

PATXI 100% 100%

Maketa

Goizak

1. Espainiarren
 2. Mexikar
 3. Japoniar

BIDE-GORRI

1. Espainiarren
 2. Mexikar
 3. Japoniar

ATARIKOH

1. Espainiarren
 2. Mexikar
 3. Japoniar

Pol. Ind. B. T. 10000, 48900, 48900, 48900

Pilotaleku barria inauguratu dabe Derion

Urtarrilaren 3an, pilotaleku estalia zabaldu zan Derioko kiroldegian, obretan 15 hilabete egon eta gero. Udalak 800.000 euro jarri ditu obra horretarako.

Pilotalekua hogeita hamasei metro luze da, eta 420 lagunentzako toki dauka. Jokalekuak hamar metro daukaz, eta kontraktak sei. Pilotaleku horri deusala, beste pilotaleku bat altxau da, erdi estalita.

Egitureari jagokonez aitatu beharra dago estalgia edo teilatua kurbatua dala; barrukoa egurrez egin da eta kanpokoa txapaz.

Inaugurazio egunean, bertara batutako pilotazaleak partidu ederra ikusteko ere izan eben: Titin eta Zezeaga bikotea,

Agirrerren eta Lasa III.aren kontra. Errioxarrak eta gipuzkoarrak irabazi eben (22-15).



Argazkia: Mari Karmen Alvarez

Txorierritarrak Eurodisney-ra

Sondikako Udalak, Larrabetzu, Lezama, Zamudio eta Deriokoarekin batera, Eurodisney-rako bidaia antolatu du. Bidaia Aste Santuan egingo da, apirilaren 16tik 21era arte, hain zuzen ere. Joan nahi duenak izena emateko epea otsailaren 3tik 17ra arte izango du. Bidaia eta prezioen informazio gehiago izateko Udak bakoitzeko kultur sustertzailearekin harremanetan jar zaitezke.

Larrabetzu-Areeta lineako autobusa ordutik ordura jarri da

Areeta-Larrabetzu lineako autobusek sarriago ematen dute zerbitzua abenduaz geroztik. Erabiltzaileek, beraz, ordurik ordura izaten dute autobusa. Gainera, Creditrans txartelaren bidez ordain daiteke. Linea honek Zamudioko Parke Teknologikoan ere badu geralekua.

Kata eta perkusio ikastaroak eta Zuberoara Maskarada ikusteko urteera

Mikel Garaizabalen eskutik hirugarren ardao kata ikastaroa antolatu dabe Lagatzukoek Zamudion martiaren 18tik 22ra. Aurten, nobedade moduan, ikastaroa bukatzerakoan upeltegi batera urteera egingo da.

Gazteei zuzendutako beste ikastaro bat be antolatu da. Hiru egunetan, hamar orduko perkusio ikastaroan, gazteek musika antxinakoenak nahiz gaur egungo puntakoenak uztartzeko erea izango dabe "tam tam" hotsen bitartez.

Azkenik, martiaren 8 eta 9rako Iparraldera urteera antolatu dabe. Zapatuan bertako txoko batzuk ezagutu eta, gaua Donapaleun pasatu ondoren, domekan, Zuberoako Altzürükü herrian, bertako kultura eta ohituretan hain sustraituta dagoan pastorala ikusi.

Ekitaldion ganeko zehaztasun gehiago jakiteko edo izena emateko Lagatzuko kideengana jo edo 944523447 telefonora deitu.

Bar TRIPPY
LUR: GHOIK ONERA

Berri berritu eta berri berri. Berritu eta berri berri. Berritu eta berri berri.

Telefono: 945 12 34 56
945 12 34 56

UMERTZARO MOGA

Tximeleta

Lanetan zuzendutako ikastaroa
Telefono: 945 12 34 56
E-mail: tximeleta@tximeleta.com

Guerrilla

Uztartze eta kultura

Telefono: 945 12 34 56
945 12 34 56

LATIN DANTZA

ILERPAINDEGIA

ILERPAINDEGIA
LUR: GHOIK ONERA
LUR: GHOIK ONERA

Telefono: 945 12 34 56
945 12 34 56

Arre-arendegia

M^o Antona Liria

Telefono: 945 12 34 56
945 12 34 56

Guerrilla

Uztartze eta kultura

Telefono: 945 12 34 56
945 12 34 56

Jainkoaren egarriz erromes

Eliza osoak eta eliztar guztiek hartu dabe Ebanjelioa hitzez eta egitez zabaltzeko mandatua eta ardura. Horretarako deia edo bokazioa bat bera da, beraz, fededun guztientzat. Zein da abadearen berezitasuna honetan? Ba, hara: Jesukristoren izenean, kristau alkartearen testigantza bultzatzeko ardura hartzea, Elizak bere premia dauan edonora joanaz. Abadetza sakramentua hartzen dauana elizbarrutia- ren edo, erlijiosoen kasuan, kongregazioa- ren zerbitzari egiten da, Eliza osoaren onerako.

Oso abade gutxidun Eliza ezagutuko da laster gure artean, honezkero begi-bistan ez badogu ere. Aspalditik goaz horretarantz abiada dezentez eta, bidea betetzen joan ahala, aldaketak izango dira –eta ez gutxi– eliz-egitura, tankera eta zerbitzuetan. “Beharrizana non, eliz-zerbitzaria hara”: horixe izan da beti abadeen bokazioaren haria, gutxi zein asko izan, eta horixe da baita Txorierrin egon diran eta gagozan abadeon zoria ere. Erromesak gara, mundu honetan erromes doan Jainkoaren Herriaren barruan. Horren eredu biziak ez dira falta, zorionez, Txorierriko parroketan, azken hilabeteotako historiari oso argi erakusten dauanez.

Orain urtebete, Erandio Goiko eta Loiuko parrokoak, Jabier Goikuriak, Kongon proiektu bat aurrera eramateko aukera izan eban. Lurrean horretan 30 urte emon izan ditu misiolari lez Jabierrek, Txorierrira etorri aurretik. Bere bihotzaren atal handi bat lurrean horretako behar-



Loiuko eliza

“Beharrizana non, eliz-zerbitzaria hara: horixe izan da beti abadeen bokazioaren haria”


tsuenen artean dago, beraz. Baina iaz ez zan bere kontura joan, abade-lagunen babesaz baino. Horrela, Afrikako misioak eragin zituan lehen aldaketak: Jose Manuel Bizkarguenagak (“Bizkarrek”) hartu eban bizkar ganean Larrabetzu eta Zamudioko parrokiaren ardura; Juantxu Zarragoikoetxearen ardurapean gelditu ziran Erandio Goikoa eta Lezamakoak; Jose Luis Erezkanok Derio eta Loiukoak hartu zituan; Sondikan, ostera, bikarioaren laguntzak abade bi egotearen itxura emoten baeban ere, ez egoan egonkortasun handirik, Lontzo Zugazaga Elizbarrutiko katekesi ordezkaria dala kontuan izanik. Horrez ganera, Pantaleon Elorduik, Julian Olazabalagak eta Juanjo Lejarazuk ere laguntzen eben batez ere domeketan, bakoitzak bere neurrian: lehenengoak Loiun, bigarrenak Larrabetzun eta hirugarrenak Loiun eta Erandion (batez ere Goierriko S. Kristobalen).

Lehen mugimenduaren haizea Afrikatik baetorren ere, gure elizbarrutiko premietan ikusi behar da bigarrenaren iturburua. Alde batetik, Markina eta inguruko parroketan premia larria egoan, hango abade baten gaixoa zala eta. Beste alde batetik, Roberto Unzuetak, hamabi urte bikario lez emonda gero urtebete ikasten egon ondoren, beharrizana ikusten zan edozein tokitara joateko prest egoala

agertu eban. Udabarria zan eta Karmelo Etxenagusia, gotzain laguntzailea, Txorierritik zehar ebilen, ikustaldi pastora- la eginez, hemengo parrokiaren egoeraz jabetzen. Gotzain eta bikarioen artean alderdi guztiak aztertu ondoren, Juantxuri Etxebarria, Barinaga eta Bolibarrekoko izateko proposamena egin jakon; Robertori, Zamudio eta Derioako ardura hartzeko; Jose Luisi, Sondikan laguntzeko, Lontzo bertako parrokoa izanik; eta Jose Manueli, Lezama eta Larrabetzuko parroko izateko. Danok emon eben baiezta, proposatutakoa hartu eta aztertu ondoren, ia berehala. Bakoitzak bere arrazoiak izango zituan, seguru asko, baina guztien oinarrian hauxe egoan: “Elizaren onerako egin ginan abade, elizbarrutiak behar gaituan tokian Ebanjelioaren zerbitzariak izateko”. Arrazoi bardinak eraginda onartu eban Juanjok ere Arratiarako deia.

Abadeei dagokien kontakizun hau borobiltzeko, azkenengo kapitulua bakarrik falta da, hau da, Jabierren etorrera. Han emon behar eban epea (udara arteko) luzatu arren, laster izango ei dogu barriro gure artean.

Azken hilabeteotako gertakizunok kontatzean, gogoan izan behar dira bihotzez eta esker onez, gure parroketan abade zintzo lez luzaroan ibili ondoren,



Erandioko eliza



Lezamako eliza

urte gutxiren barruan Jainkoarenera joan dakoak: Sabin Loroño, Santi Arriaga eta Tomas Bustinza. Hemengo bizitzako erromesaldia bete dabeneok badabe zerikusirik eta eraginik Txorierrin erromes gabiltzan eliztarrongan.

Dana dala, abadeon joan-etorriek Txorierriko eliz-alkarteak egindako historiaren ataltxo bat baino ez dabe betetzen. Azken 20-30 urteotan ez dira gutxi izan hemengo parroketan hainbat era eta mailatako lanak aurrera eroan dituen eliztarrak. Abadeak ez dira, zorionez, arduradun bakarrak izan. Orain, gutxituz doazala ikusteak jokabide bi sendotu ditu gure artean: erlijiosa eta laikoen parte hartzea

“Astiro-astiro baina gero eta argiago ikusten da Txorierriko parrokia guztiak, bat bakarra osotuko balebe lez, batera jokatu behar dabela”

eliz-zereginetan, alde batetik, eta parrokiak alkarrekin estuago lotuta jokatzea, bestetik.

Lehenengoari dagokionetik, ezaguna da hainbat moja eta laikoren lana umeen katekesian, gaixoen laguntzan, bateoak prestatzen, diru-kontuak eroaten, gazteen pastoraltzan edo elizkizunetan. Abadeekin batera, eurok eusten deutse Elizak eskeintzen dituen era guztietako zerbitzuei. Euron artetik sortuko dira –eta sortzen doaz– Txorierriko parrokien bizitza bultzatzeko azken ardura izango dabeneak, sasoi bakoitzean egon daitezten abadeekin batera.

Bigarrenari dagokionetik, astiro-astiro baina gero eta argiago ikusten da Txorierriko parrokia guztiak, bat bakarra osotuko balebe lez, batera jokatu behar dabela, bai ebanjelizazioaren helburuak eta ekintzak zehaztean, bai erabakiak hartzean edo eliz-zerbitzuak eskeintzean. Honetariko batzuk –Mezak eta beste sakramentuak, gaixoen ardura, umeen katekesia edo gazteena– toki guztietan eskeiniko dira eta halantxe izan behar dau. Beste batzuk, oster, –katekisten eskola, Caritas edo bateo eta ezkontzarako prestateta– toki batean edo bestean eskeiniko dira guztientzat, oraintsu egiten hasiak garanez.

Gaur ere, beti bezela, Jainkoaren Espirituak bultzatuta, erromes eta egarriz dabil eliz-alkartea argi-ilunetan, Ebanjelioaren lekuko izateko biderik egokienak bilatzen. Bere egarririk erakusten dau, hain zuzen ere, iturriaren arrastorik argiena eta itzaropenaren euskarrik sendoena.

Testua: Angel M. Unzueta (Bikarioa)

LIBRERIA SONDIKIZ LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK ISKULANAK, E.A.

JASOZ MANGUET IZARRA ANIZTAN

Liburugak, liburuetatik, giletatik, piletatik, piletatik, liburuak, paperekin eta zirkulak

Miliet Zuzen, s/ Tel. 7 Euzko 91 199 1637
48100 KONDUKA (Bizkaia)

ZAMUDIO

Garbitzaileak

Telefonoa: 945 33 26 70 - 945 33 26 44

ZAMUDIOKO ESTANDEA

Talabak, liburuak eta oporrik

Talabak deitu: 945 33 26 70
Telefonoa: 945 33 26 44

OSKARBI

fotoargifotok

1942

1942

TEL. 945 33 26 70 - 945 33 26 44

GUEDAN

serbisia irekiaren, S.A.

ZAMUDIOKO UTEAL KIRIOLDEAN

1942

“Eszenatoki gainean libre sentitzen naiz”



Gazte-gazterik musikan interes handia zuela argi utzi zuen. Izan ere, Larrabetzuko Musika Eskolan zeharkako txirula ikasteaz gain, Zamudioko gazte hau pianoa, gitarra eta perkusiozko instrumentuekin ere ausartu zen. Orain dela gutxi, sortu berria den Khronos musika taldean teklatuak eta txirula jotzen hasi da. Bere esanetan, taldearen estiloa metaletik hurbil egon arren, espektro handiagoa hartu nahi du rock progresiboa eta herri ezberdinetako soinuak batuz. Gaur egun, lehendabiziko diskoa, kaleko musikari baten gazi-gozoek kontatzen dituen lan kontzeptual bat, prestatzen dabilza.

Khronos taldea mutrikuarra da, zer dela eta Txorierritik hain urrun musika jotzera?

Klaseko lagun baten bitartez, Mutrikuko jendea ezagutu nuen. Musikari dagokionez oso gustu antzekoak geneuzkela ikusita, haien proiektuan parte hartzea erabaki nuen. Hasieran, autorik ez eta komeriak egin behar izan nituen entseguetara joateko, baina merezi zuen.

Zeren gainean hitz egiten dute Khronosen hitzek?

Baztertzearen eta ezberdina denari beldurraren gainean batez ere. Prestatzen gabiltzan diskoan istorio bat kontatzen dugu eta esan daiteke hitzen azpian kritika soziala ere badagoela. Dena den, ez da agertzen espresuki. Jendeak entzutea eta, bere kabuz, kontuak egitea nahi dugu.

Euskaraz egiteak, zure ustez, laguntzen die sortu berriak diren taldeei?

Euskal Herrian behintzat, bai, gazteetarako askok euskarazko musika entzuten du eta. Hala ere, guk ez diogu inoiz geure buruari hizkuntzaren gaia planteatu. Euskara da gure ama-hizkuntza eta oso eroso gaude euskaraz konposatzen.

Baina merkatua zabaldu nahi izanez gero...

Oztopoa izan daiteke, baina badaude Euskal Herrikan kanpo birak egiten dituzten taldeak: Kortatu, Su Ta Gar... Dena dela, hasi baino ez gara egin eta orain kontzertuak ematea da gure ardura nagusia.

Bost kontzertu eman dituzue dagoeneko, zelan ikusten duzu zeure burua eszenatoki gainean?

Gustuko duzun musika jotzen duzuean izugarri gozatzen duzu. Ni eszenatoki gainean libre sentitzen naiz. Lehendabiziko kontzertua eman aurretik nahiko artega nenbilen, baina jotzen hasiaz batera desagertu zen urduritasuna.

Noraino heldu nahi duzu musika munduan?

Musikari esker bizitza gustatuko litzaidake, baina ez dut uste posible izango denik, talde honekin ez, behintzat. Egiten dugun musika zaila da etiketatzen eta diskoetxe gehienak ez daude proiektu berrietan dirua arriskatzeko prest. Beste alde batetik, kontratu bat egiteko orduan, diskoetxeek baldintza asko jartzen dituzte eta ez nioke nire pentsaerari uko egin nahi diruagatik.

Nola ikusten duzu musika egoera Euskal Herrian?

Sasoi onean dagoela pentsatzen dut. Euskaraz egiten duten taldeak gero eta gehiago izateaz gain, gero eta musika mota gehiago jorratzen dira: dance, hip-hop... Hori abesgarria da.

Urtebeteko Aikor! Goitioltzako auzoan

Testua: Juan Luis Goikoetxea Arrieta



Pedro Mari Goikoetxeak aurkeztu eban ekitaldia.

Abenduaren 19an jaso zituan Aikorrek –Mikel Zarateren ilobak- lehenengo zorionak. Ospakizun bete-betea, Nafarroako Santxo Azkarrak beretzat gurako leukean lakoa. New Yorkeko Torre Bikotxen ostekoa da Aikor, munduko agintariek euren giharreak erakusten dabilzan arokoa.

Konbidatuok autoa amatatu orduko entzun genduan txalapartaren harrera. Hasiera berbak eurak baino txorierritarren fisonomia, gorpuzkera, esku emotea, iluntzeko sorgin orduak geratu jakuzan gogoan.

Pedro Mari Goikoetxea –hurrengo etxekoa, telebistako argietara ohitua- ondo etorri esanez oholza ganean. Beti bere lezamarra otzaran langostak agirian itzuli izan dira plazatik.

Agur Jaunak armonikoa eskaini euskuen Ekidazu abesbatza-koek. Bikain. Zer deritxo irakurleak letra moldatzeari? "Agur jaunak, andrak agur...". Ekidazu berbea Pardoko Miru Zaharraren –halantxe deitzen eutson Frankori- zentsurapean Euzkadi mozo-rotzeko sortu eban Mikelek

Topaguneko sarean, Euskal Herrikoan da Aikor, Asier Iturriagak patxada osoz erakutsi eban legez.

Xabier Goienetxe lehendakaria –batzuk "uretarako nahiz surterako balio deurie"- koplak alde batera itxita azaldu zan: 12 bide-
rrez atara dala; 4.750 ale banatu; 8.000.000ko aurrekontua –pezeten sasoian jaio da Aikor-; 3 behargin dagozala, eta pozgarriena, ederto doala.

Aikor sarietan Gabriel Etxebarria, euskaldun eredugarria, goraiatu zan. Ondo mereziduta, behia baino soloa lehenago ikusten daki-eta. Baita BBK bere, Bizkaiko Diputazioko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia eta ahaztu ez arren.

Etxahun Lekuek –Mikel Zarateren osteko belaunaldiaren gidari erara- bertso inpaktanteak bota zituan. Gurasoen adinekoak alaitasuna, gazteek txaloak, soka ez da eten.

Fernando Olabarrieta goitioltzarrak –kulturako eta folkloreko Aitzol barriak- Mikel Zarateren 25. urteurreneko omenaldi itzela aipatu eban, argi eta zehatz.

Luntxean, Marokoko perejila izan ezik ganerako guztia dastatu genduan, tartean trikitilariak –83ko uriolen ostekoek- arnasa bete ezineko erritmoz ekiten eutsiela. Gazteenak dantzari, urte gehitxoagokoak aspaldikoka; argazkilariak...

Txorierriko moltzo ezin ederragoa, gizonezkoak zein andrazkoak, herri guztietakoak –nahiz eta halakoetan beti Larrabetzuko bat gehiago agertu-, Derioztarrak, Zamudiokoak, Loiutik etorriak, Sondikarrak... Euskaltzaleak, euskal piramidearen oinarriak, norbere buruaren eta etxearen arduraz ganera gizarteko arazoak leba deustienak, askatik askera begiratzen dakienak.

Eskerrak emon beharreko gara, bihotz-bihotzez, urteurren hau gozatu daigun hainbeste lan egin dozuen antolatzaileoi.




Txalapartaren doinuak emon euskuen ondo etorria.



Jentetza handia batu zan Aikori!-en urteurren ekitaldira.



Gabriel Etxebarria Lagatzuko presidentek eta Bego Goikoetxea BBKren ordezkariak jaso ebezan Aikor! sariak.



Fernando Olabarrietak Mikel Zarateren omenaldiaren barri emon euskun.




Etxahun Lekue Larrabetzuarrak bertsoan jardun eban.



Asier Iturriaga Topaguneko ordezkariak eta Xabier Goienetxe aldizkariaren zuzendariak, berba egin euskun Aikor! eta herri aldizkarien garrantziaz.

Aikor!-ek Txorierriko komertzio eta enpresari eskertzen deutse aldizkarian publizitatea ipini izana. Zeuen laguntasuna ezinbestekoa da aurrera egiteko.



JUAN MARI BELTRAN
 KONTZERTU BIKAITINDIA
 (Martxoaren 29, iguerdian)
 antzerkialde 20:00etan
 ANTZERKO URTZOHIAN

IRINTZI ANTZERKI TALDEA
 "Bakartxoaren zaparrak"
 Osozkoan 8an, 10etan
 iguerdian 12:00etan
 Zamudio Komplexuan
 Zamudioan las robarikoa
 ezinezko da!
MAITEGILATEI
ZURE GENE-ALABAK
 URTZOHIA.

EDURNE PASABAN
 "Tzuzen erakutsia beren buruarekin"
 Osozkoan 8an,
 antzerkialde 20:00etan
 Zamudioan



LEGE TEA
 Zure erakutsia
zuzen erakutsia?
 baten orain




Edikazu abesbatzak saio ederra egin eban.



Andra honeek gogor ekin eutsoen heinbeste jenderen sabelak beteteko.



Gau hartan alkartu ginanok primeran pasa gendun, berbetan, jaten eta trikiti doinuaz gozaten.



Galiziara garbitze lanak egitera joan den Txorierriko gazte baten testigantza

Iker Atxutegi: "Hain kosta polita horrela ikustea lotsagarria da"



Urte hasieragaz batera, lehen asteburuan, txorierritar talde batek, beste hainbesteren moduan, euren elkartasuna adierazi gura izan zuten eta Galiziara abiatu ziren. Derioko udalak antolatutako autobusa bete egin zen -55 lagun inguru-, eta beste hainbat "itxaronzerrendan" gelditu ziren. Bidaia oso luzea egin ostean, ordu batzuk baino ez zuten lan egin galipota garbitzen, Camariñas herrian, zoritxar honen ondoren hain famatua egin den Muxía herriaren aurrez aurre, erreka-aren bestaldean. Orrialde hauetara protagonista baten berbak ekarri gura izan ditugu. Iker Atxutegi, 18 urteko derioztarra.

Irten zineten aste horretan, komunikabi-deetatik boluntario gehiago ez joateko zabaldu zuten, ez zela behar. Hala eta guzti joan egin zineten. Zer dela eta?

Ni Derioko Gaztelekun apuntatuta nengo. Hori entzuten, bertara joan eta konfirmatu zuten inork ez zuela esan suspenditzen zenik, eta joan egingo gine-la. Han, Galizian, ez genuen holakorik entzun. Gainera, nire ustez, lana badago jende askorentzat eta denbora luzerako, gainera.

Zein motatako jendea joan zineten?

Gehienak gazteak, 18 urtetik 30era bitartekoak. 18 urte baino gehiago eduki behar zen, aseguru dela eta uste dut. Autobus erdia edo, Derioko gazteek betetzen zuten, beste erdia Txorierriko beste herrietakoek, eta kanpoko baten batek ere. Neskak eta mutilak, esango nuke, erdi eta erdi.

Zer moduz bidaia?

Abenduaren 27an irteteko zen auto-

busa, baina azkenean urtarrilaren 3an irten ginen, barikuan, gaueko 9etan. Gau osoa autobusean pasata, Santiagora goizko 6etan heldu ginen. Kurbaz beteriko bidea, Asturiasetik joan ginen eta. Santiagoko Unibertsitateko kanpusean trasteak utzi, gosalduta eta ostera ere autobusa hartu genuen. Hor kaosa hasi zen, batetik bestera ibili ginen, inork ez zekien nora joan behar ginen. Administrazio arazoa zela eta desorganizazio itzela zegoen. Egun horretan jan be ez genuen egin,

“Batetik bestera ibili ginen, inork ez zekien nora joan behar ginen”

esan zuten "bokaten" automobilak istripua eduki ei zuen, ez dakit egia ote zen. Azkenean, berandu heldu eta 2 ordu besterik ez genuen lan egin egun horretan. 2etatik 4etara.

Zer garbitu zenuten?

Kontatu dudan moduan, lehenengo egunean ezer gutxi garbitu genuen, ordu bi, eta gainera arroketa eroan gintuzten. Oso gaitza da ezer garbitzea hor, eskuz ia ezinezkoa da, ez da ikusten ezer egiten duzunik. Hurrengo egunean bai, hobeto. Camariñasen be bai, baina oraingoan hondartzan. 3 ordu, lana hobea da, garbitzen dena, behintzat, ikusi egiten da. Nahiz eta harea azpian batzutan usain txarreko masa handiak topatu, algak eta galipota dena nahastuta.

Zelakoa da hain ezaguna egin den trajea?

Azpitik zure arropa daroazu, gainean txubaskero beilegia, eta honen gainean botak, eskularrak eta buzo zuria, dena zeloagaz lotuta eta "seilatuta", aurpegi-maskara ezin da falta. Haitzetatik lan egiteko oso deserosoa da. Gainera, aurpegia izerditan ipintzen zaizu atoa. Amaitu ostean, botak erabili daitezke osteria ere, baina gainea guztia bota egiten da, behin bakarririk erabili daiteke.

Hortik aparte, hasi aurretik, olio antzekoa zabaltzen genuen aurpegian, eta lan egin ostean, krema bat, hareagaz nahastuta edo, igurtzi eta galipota kentzeko.

Zelan antolatzen zineten, zein aholku jarraitu zenuten?

Bost talde antolatu genituen, eta talde bakoitzean, 2-edo "esku garbiak" ziren. Zertarako? Besteak "prezintatzeko", aurpegi-maskara kendu eta ipintzeko, izerdia sikatzeko, ura ahora emateko eta moko zapiagaz mokoak kentzeko be.

Garbitzeaz aparte, zer gehiago egin zenuten egun bietan?


Gehienez, egunean 4 ordu egin daiteke lan, hori ere ez zen egin, baina ez genuen astirik ezertarako ere ez. Kontutan eduki lo egin genuen lekutik ordu biren bidea zegoela itsasoraino, bi joateko eta beste bi itzultzeko. Santiagon eman genuen gauean ondo eman ziguten afaltzen, dutxatu eta gehienok Santiagoko gaua dastatu genuen.

Zelako harremana eduki duzue bertakoak, zein da han nabaritu duzuen giroa?

Bertako jendeagaz gehiegi ez ginen egon, leku askotako jendea zegoen. Valentziarrak, alemaniarak... ikusi genituen. Gainera zapatuan joan ginen, eta Santiagon ikasleak alde eginda zeudenez, ez genuen jende askorik ikusi.

Nire ustez bertako jendea moskeatuta dago, baina ez behar beste. "Nunca mais" bai, leku guztietan agertzen da, kaleetan, tabernetan. Baina katastrofe baten moduan, ez inori erantzukizunik eskatzeko. Geure artean komentario nagusia zen zelan egon litekeen hainbesteko deskontrola eta kaosa, zelan diren hain "torpe" holako tragedia bat sortzeko.

Guk geure aldetik ikurrin batzuk eroan genituen, leku guztietan txapelagaz ibili be. "Euskadi Galiziarekin elkartasuna" jarritzen zuen pankarta bat jarri genuen katedraletik oso hurbil.



Oraindik lan handia dago kostaldeko garbi gero dadin.

“Egon garen kosta polita da, pasada bat, eta dena belztuta ikustea, haitzak beltz-beltzak ikustea, lotsagarria da eta baten batek dauka horren errua”

Gauza bitxirik gertatu zaizue?

Aholkuen artean esnerik ez gosaltzeko gomendatu ziguten, zukuak hartzeko, esnerik ez. Txokolatea jateko be bai. Bitxikeri moduan konta ahal dut militarrek be ikusi genituela, eurek ez genuen lanik egin, baina kamioi militarrek erabiltzen ziren joan eta etortzeko. Gutariko asko, ahal izanez gero, ez ginen igotzen kamioi horietara.

Zer edo zer gehitzeko esandakoari?

Bai, beharbada asteburuko bidaia gutxiegi dela, ordu gehiago eman genuen autobusean bertan baino. Joatekotan aste osorako joatea hobeto. Bertako antolakuntza aldetik ekarri dugun inpresioa da hura desastrea dela, inork ez zekien ezer, kaosa. Beste alde batetik, egon garen kosta polita da, pasada bat, eta dena belztuta ikustea, haitzak beltz-beltzak ikustea, lotsagarria da eta baten batek dauka horren errua.



Txorierriko gazteak gogoz aritu ziren garbitze lanetan.



Prestige-ren hondamendia dela eta Galiziako kostaldea nola geratu den ikustea penagarria da.

Galipota heldu da Euskal Herrira

Gure kostaldean ere hasi dira azaltzen Prestige ontziaren hondamendiaren ondorioak. Galipota "gaileta" itxura hartuta heldu da eta gure hondartzetako harea eta haitzak lohitu ditu. Itsasoko animalia askoren bizia arriskuan dago, nahiz eta orain artean, galipotona asko kendu. Makina bat itxas txori hil da eta beste askori laguntsauna eman behar izan zaie.

Fuelaren erasoari aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak hainbat neurri hartu ditu, ekologista taldeen laguntasunarekin. Besteak beste, hesiak zabaltzeko dira itsasoan, galipotari bidea ebakitzeko eta kalteak ahalik eta txikiak izateko (Urdaibaiko biosferan sartuko balitz, kalteak ikaragarriak izango lirake). Beste alde batetik, haizeak gogorregi jotzen ez duen guztietan, arrantzaleak fuela batzen abiatzen dira itsasora.

Gainera, hondartzak garbitzeko taldeak antolatu dira. Foru aldundiek kontratatutako enpresak eta langileak garbitze lanetan aritzen dira. Laguntza gehiago beharrezkoa bada, udaletako taldeei eta boluntarioei deituko zaie. Ildo horretan, aipatzekoa da boluntario batzuk euren bere kabuz ibili direla garbitze lanetan. Hala ere, halako lanetan jarduteko beharrezkoa da izena ematea, osterantzean ez dute uzten hondartzetara joaten. Izena eman nahi duena harremanetan jar daiteke bere udalarekin edo Ekologistak Martxan taldearekin (tel.: 944156658). Itsasoak zeure laguntza behar du!

Ainara Gorrotxategi eta Biki Barkos, bidaiaren antolatzaileak

Nori bururatu zitzaion bidaia antolatzea?

Lagun batzuen artean erabaki genuen, Derioko udaletxera deitu eta inolako erreparorik gabe subentzionatu zuten bidaia. Udalak ordaindu zituen autobusa, eskularruak eta aurpegi-maskarak. Botak, urezko trajea, janaria... bertan eman zizkiguten.

Zelako oztopoak aurkitu zenituzten joan aurretik?

Lo egiteko ez genuen lekuri aurkitzen kosta aldean, eta azkenean Santiagon egin behar izan genuen, kostatik ordu bira. Gainera, Gabonak ziren, garai txarra, astebete atzeratu behar izan genuen hasierako data.

Hara heldu eta hainbat arazo eduki zenuten. Zergatik?

Guk geneuzkan telefonoak eta kontaktuak bertako boluntarioenak ziren, eurak arduratzen ziren dena antolatzen. Baina joan baino egun bat lehenago, Xuntak monopolizatu zuen dena, enpresa bat kontratatu zuen dena antolatzeko. Aldaketa tokatu zitzaigun, eta desordena. Argi ikusi genuen Xuntari ez zitzaiola interesatzen boluntarioen hartzea. Xuntaren eta herrikoen artean nahaste handia dago, kostaldeko herri batzuetan kiroldegiak itxi egin dituzte, boluntarioen joan ez dadin.

OLANDO S.L. ARROZTEGIA

- Guztietako altxariek, neurriak egiten.
- Datuak altxariek, neurriak egiten.
- Izama-erretxak
- Mehatxak eta sultxak
- Tokolastariek altxariek

OLANDO S.L.
111, Galaxiarua, 48100 Leizor
945570000 (Galaxiarua) | Tel. Fax: 941 66 99 99

HIRUKOTE

INDUSTRIALIA FERRAJA
INDUSTRIALIA FERRAJA

INDUSTRIALIA FERRAJA
INDUSTRIALIA FERRAJA

INDUSTRIALIA FERRAJA
INDUSTRIALIA FERRAJA
INDUSTRIALIA FERRAJA
INDUSTRIALIA FERRAJA
INDUSTRIALIA FERRAJA
INDUSTRIALIA FERRAJA


CONDAT

LUBRIFICANTES

Teléfono: 949 415 505
J. A. F. Yubela


- Taldarrik
- Koipek
- Deformazio erloiek
- Mantentze erloiek

“Itsasoak ez du merezi



Laiene Cristóbal


Zer deritzozu Galizian gertatukoari? Berriz gertatu behar ez den istripua izan dela pentsatzen dut. Izan ere, itsasoan oso eragin larriak izan ditu. Ondorioz, arrantzatik bizi den jendearentzat zaila izango da berriro hastea. Bizimoduz aldatu beharko dute.



Alberto Cabrilla


Nire ustez, istripu hori alde aurretik ekidin zitekeen. Horretarako badaude seguritate arauak,...

Nola ikusten duzu Estatuko Gobernuaren joera? Gauza gutxi egin du. Arazoa konpontzeko erabili dituen baino baliabide gehiago dauka.



Julen García


Joango zinateke Galiziara garbitze lanak egitera? Bai, baina hemen ere, zoritxarrez, badaukagu lana egiteko. Fuela gure itsasaldeetaraino heltzen hasi da... Estatuko Gobernuak ez duela ezer egiten ikusita, norbait egin beharko du... Itsasoak ez du merezi gertatutakoa!



Arantxa Garrido

Eta zu, zer pentsatzen duzu Prestigeren hondamendiaren gainean? Desastre hutsa izan dela.

Joango zinateke garbitze lanak egitera? Bai, ni ere joango nintzateke... Hala ere, entzun dut galipota gizakientzat kaltegarria izan daitekeela.




Xabier Ortiz de Urbina

Zure ustez, galipota kaltegarria izan daiteke osasunerako? Probak egin beharko lituzkete jakiteko kantzerigenoa den ala ez. Dena den, joango nintzateke, Bilbon gertatuz gero, besteek laguntzera etortzea gustatuko litzaidake eta. Beste alde batetik, boluntarioen lana ezinbestekoa da, baina Gobernuak bidali beharko lituzke langileak garbitze lanak egitera.



Oihana Astobieta


Pentsatuta daukazu Galiziara joatea garbitze lanak egitera? Joan aurretik ondo pentsatu beharko nuke, psikologikoki nahiko frustrazio handia har dezakezula entzun dut eta. Asko imajinatu arren, hara joan behar duzu benetan gertatzen denaz ohartzeko. Dena den, lagundu behar duena Gobernuak dela pentsatzen dut.



Nerea Revilla

Zu Galizian egon zara, zelan gogoratzen duzu esperientzia? Gogorra da ikustea. Lau ordu ematen dituzu txapapotea kentzen eta alde egiteko orduan ez duzu nabaritzen egin duzuna. Gainera, Xuntaren aldetik ez genuen laguntzarik jaso... Eskerrak hango jendeak gauzak hobeto antolatuta zeukatela!

Merezi izan du? Bai, bakoitzak gure parte egiten badugu baliabide urtebete barru itsasaldea garbiago egotea.



Odei Jimenez

Zergatik joan ziren Galiziara boluntario? Nahiko arazo larria zela ikusita, garbitzera joatea erabaki nuen. Esperientzia apur bat desesperagarria gertatu zitzaidan. Izan ere, 10 kilo galipot kentzen dituzu eta oraindik tonak eta tonak falta direla ohartzen zara. Gainera, antolaketa ez zen oso ona...

Itzuliko zinateke? Bai. Nahiz eta gutxi izan, laguntzeko zerbait egin ahal baduzu merezi duela pentsatzen dut.

AVRTENETXE .S.A.

MANAGEMENT DE TRAFIC ET DE SERVICE DES
HELIPLANS EN GALICIE - LORRAINE

AVRTENETXE .S.A.
AVRTENETXE .S.A.
AVRTENETXE .S.A.
AVRTENETXE .S.A.

AVRTENETXE .S.A.
AVRTENETXE .S.A.
AVRTENETXE .S.A.
AVRTENETXE .S.A.

ALDIZKARIAN PUBLIZITATEA
JARRI GURA DUENAK DEITU
BAINO EZ DU EGIN BEHAR
TLFNOA: 94 452 34 47
EDO E-MAILEZ ESKATU
aikortxori@yahoo.es

Ipar-Alde abesbatza



Derioko Ipar-Alde Abesbatza ezinbesteko erreferentzia dogu Txorierrin. Orain dala 27 urte sortu zan Derion dagoan Indosa enpresan, bertoko langile batzuen ekimenez. Orduko sasoi ederrak aproposak ziran enpresa barruko hainbat jardue- ra antolatuteko, kirol lehiaketak eta mendi ibilaldiak, besteak beste. Testuinguru honetan sortu zan gaur egun Ipar-Alde Abesbatza izenagaz ezagutzen dogun hau. Hasikeran, bere ekitaldi guztiak lantegia- gaz zerikusia eukien ospakizunetara mugatzen ziran. Baina 1978. urtetik aurre- ra, J.J. Aparicioaren zuzendaritzapean,

aurrerapauso nabarmena emongo dau abesbatzak, apurka-apurka lantegitik kan- poko ekitaldietan parte hartuz eta Bizkaiko musika koralaren esparruan burua eraku- tsiz. 1980. urtean Begoñako Basilikan abesten dabe, eta 1982tik aurrera, Indosagaz daukien loturea zeozer arindu eta gero, taldeko atekak zabaltzen jakez bertan abestu gura daben herritar guztiei. Aurrerantzean herriko eta lurraldeko kantu koralaren inguruko ospakizun gehienetan egongo da (Agate Deunaren kantaldiak, Udabarri eta Udagoieneko kontzertuak) eta, azkenik, Ipar-Alde abesbatzak berak

antolatuta, 1985. urtean Txorierriko Gabon Kanten Jaialdia jaioko da, dagoe- neko 17 urte bete dituana. Ibilbide luze hone- tan makina bat urteera egin dabez Bizkaiko eta Euskal Herriko herri askotara, eta Europako zenbait herrialdek be euren aho- tsez gozatzeko aukerea euki dabe, Espainia, Frantzia, Austria eta Italian hain zuzen.

Abesbatzaren gaur eguneko egoeraz eta helburuez zeozer gehiago jakiteko, bere presidente Javier Zubietagaz eta tal- deko partaidea dan Jose Luis Larrondogaz egon gara berbetan.

Zenbat zarie gaur egun?

40 inguru. Hasi ginetik –orduan 18 lagun ginen– gorantza joan da kantukideen kopurua. Izan be, Derioko eta inguruko herrietako hainbat lagun etorri jakuz. Bilbokoren bat be badago, eta argi dauka gu inori ez jakozala ateak itxiko gugaz abestu gura badau.

Orduan, edonor sartu ahal da?

Bueno, hasi aurretik zuzendariak proba bat egingo leuskio bere ahotsaren ezaugarriak eta egokitasuna neurtzeko. Ez doguz Pavarottiren dohainak eskatzen!! Zaletasuna agertzen badau, eta, batez be, entseguen eritmoari seriotasunez eusten badeutso –astero egun bi, martitzen eta eguenetan, gaueko 8,30etatik 10etara– ez dago arazorik. Gainera, jente gaztea behar dogu abesbatzan, urtetan gabilzanoi lekukoa hartzeko.

Arestian 40 inguru zariela esan dozue. Zelango ahotsak dagoz 40 horreen artean?

4 multzotan banatu daikeguz ahotsak. Abestean bakotzak hartzen dauan lekua arabera begiratuta, ezkerretik hasita, 1. tenoreak dagoz –10-11 inguru–, gero 2. tenoreak –beste 10-11–, baritonoak –10–, eta azkenik, baxuak diran 8 korukide. Zuzendaria da, azken baten, bakotxa leku egokian egon daiten arduratzen dana.

“J.J. Aparicioaren batuta-pean emondako urteak izan ziran, zalantza barik, hazkunde-sasoirik handiena ezagutu dabena”

Zuzendaria aitatu dozula eta, nor dozue gaur egun ardura horretan?

1996ko urtariletik Imanol Ormaza bermeotarra dogu zuzendari. Artean, Mikel Gallastegi egon zan 1976tik 1978ra, J.J. Aparicio 1978tik 1995era eta Osane Oruetxebarria 1995eko irailetik 1996ko urtarrilera.

J.J. Aparicioaren batuta-pean emondako urteak izan ziran, zalantza barik, hazkunde-sasoirik handiena ezagutu dabena. Azkenengo urteetan, lortutako mailari eustea dogu helburu, urtero antolatzen diran ekitaldietan parte hartuz eta Txorierrin daukagun tradizio korala gure mugetatik kanpo erakutsiz.

“Gure asmoa beti izan da herriko tradizio musikala sendotzea, eta hortan jarduten dogu hainbat aktibidadeen bitartez”

Nahikoa ezaguna da Derion, herriko jaietan zein Gabonetan, urtero antolatzaren dozuela musika ekitaldiren bat. Herriko bizitza kulturalagaz daukazuen konpromiso hau, zertan gauzatzen da?

Egia da. Gure asmoa beti izan da herriko tradizio musikala sendotzea, eta hortan jarduten dogu hainbat aktibidadeen bitartez. Otsailean, Agate Deunaren egunean auzoz auzoko kantaldi batzuk eskeintzen doguz, Olentzeroagaz batera urtetan gara kalera kantetan, eta Gabonetan Txorierriko Gabon Kanten Jaialdia antolatzen dogu. 17 urte daroagu lan honetan eta, gitxienez,

beste horrenbeste betetzeko prest gagoz. Txorierriko herri guztietan ospatzen dira ekitaldiok, euskal tradizio koralarren ordezkari askoren partaidetzagaz. Amaiera beti eukiten dogu Derioko San Isidro eleizan, urtarrilaren 5ean edo 6an, partaide guztiak bertaraturik.

2003rako planen bat edo, hobeto esanda, programaren bat badaukazue?



Alde batetik, Valladoliden egingo dan jaialdi batera joateko asmoa dogu, eta bestetik, igaz Asturiasera egindako bisitaldiaren buelta eukiko dogu, hango abesbatza etorriko da eta. Bestalde, Bizkaiko Abesbatza Elkarteko kide garan aldetik, baditugu beste talde batzuekag hartuemonak, eta honen ondorioz, urtean zehar, Bilbo, Zierbena eta Turtziozera joango gara, besteak beste, hantxe bertan ospatzen diran ekitaldietan.

Honez gain, ohikoak diran ekitaldiak antolatuko doguz herrian: lehen aitaturako Agate Deuna, Olentzeroarena eta Gabon Kanten Jaialdia, eta Udabarriko Kontzertuak. Honeguz batera, herrian ospatzen diran jaiegunen egitarauan be parte hartzen dogu aktuazinoaren bat eskeiniz.

Bueno ba, ea noiz ikusten zaituegun nazioarteko txapelketaren batean, edota telebistan, ez?

Euskal Telebistan urtenda gagoz, 1989. urtean, ETBko I. Abesbatza Jaialdian, baina tira, ez dogu bazterten aukera hori. Eta bestalde, nazioartean ibilita gagoz, Viena, Venezia, Paris eta Espainiako zenbait herri eta hiritan.

Testua: Fernando Larrondo



Zer da abono berdea?

Abono berdea bazka landarea edo forraje erakoa da. Guztiz hazten denean, txikitu eta lurrarekin nahasten da eta horrela, urteetako barazkientzako ongarriztat erabiltzen da. Ortu askotan lur sailak biluziak agertzen dira neguan, baina askoz hobeto izango litzateke lurra abono berdearekin estalita egongo balitz; horrela, lurraren estruktura hobetzen eta neguan jasan dezakeen higadura edo erosioa leuntzen lagunduko lioke. Bestalde, abono berdea haztean, interesatzen ez zaizkigun belar txarrak gutxitu ahal dira. Udazkenean erabili ditzakegun landare klase hauen tartean, babak, koltza, raigras, oloa, zelka etab daude. Asko erabiltzen den nahasketak bat, 100 metro karratuko kilo bat zelka eta 800 gramo olo da. Hazia lurrean bota ondoren, zerbait lurperatuko dugu eskuare edo motokultorekin azaleko lan baten bidez.

Testua: Derioko Nekazaritza Eskola (MENDIKOI)

Eta praktikan...

Jakin izan dugunez, gutxi dira gure eskualdean abono berdea erabiltzen dutenak, agian frutikulturaren lanean dihardun baserriarren batek. Gai horren inguruan, Agustin Landetarekin hitz egin dugu.

Erabiltzen duzu abono berdea?

Ez, nik lorezaintzan lan egiten dut eta, nire arloan, onura baino kalte gehiago sortzen duela uste dut. Izan ere, azken batean usteltze horrek onddoak ekartzen ditu eta beste kaltegarri batzuen sorrera. Gainera, gure klima hau ez da aproposa erabiltzeko. Hala ere, kultibo ekologikoan normala da erabiltzea, baina nekazaritzan edo loragintzan produktua-

ren perfekzioa bilatzen da eta ez duzu ezer kaltegarri izan nahi. Nik hemen ez dut inor ezagutzen erabiltzen duenik, agian frutikultoren bat.

Zer abono mota erabiltzen duzu?

Abono organikoa batez ere, hau da, behien satsa eta gero mineral guztiak erabiltzen ditut.



Inauste ikastaroa Lezaman

Lezamako Udalak, Foru Aldundiaren Kultura Sailak diruz lagunduta, fruta zahaitzen inauste ikastaroa antolatu dau, urtarriaren 25erako eta zezeilaren 1 eta 8rako.

Hiru zapatuotan goizeko 9,30etatik 13,30etara izango da ordutegia eta prezioa 35 euro lezamarrentzat eta 48 euro beste herri batzuetakoentzat.



KIMA
Landarek
LANDARE APAINGARRIA
Galdak 51 - Tel. 94 485 21 01 - Fax. 94 485 41 77
40100 LEZAMA

SULT. LEGY
SULT. LEGY
Pl. Euzkadiaren 100, 40100 Lezama
94485 21 01 - Fax. 94485 41 77
www.sult.legy.com

FERMIN
Fermin, S.L.
E-40100 LEZAMA

Email: kontuz mezuekaz!

Testua: Alberto Legarreta

Jendeak gero eta gehiago erabiltzen dau posta elektronikoa (e-mail). Enpresa gehienetan badauke euren domeinua, euren helbideak, eta normaltasunez hartzen da hori. Etxean be Internet gero eta gehiago erabiltzen dala ikusten da, baina oraindino ez gagoz Europako mailan. Gazteak helbide elektronikoen bitartez eukiten deureiz hartu-emonak.

Halan eta guztiz be, gauza garrantzitsuak euki behar doguz kontuan erabilkeeran. Ez dogu birusi buruz berba egingo, ze artikulu oso bat atara gendun, haren funtzionamendua deskribatzeko. Bakarrik aitatuko dogu posta elektronikoa dala birusak zabalduteko gehien erabiltzen dan tresna.

SPAM

Spam geitzen jako posta elektronikoa bitartez eskatu bako mezuak —gehienetan, propaganda— bialtzeari. Zeure helbidea harrapatzen dabe, zelan edo halan zerrenda baten sartuz, izan be, Interneten tranpa asko izaten dira helbideak biltzeko. Zerrenda horreek saltzekotan dagoz Interneten. Publizitaterako edo iragarpenetarako erabiltzen dabe, mezu asko bialduz. Debekaturik egon ez arren, Internet hornitzaileen artean konpromisoa dago spam debekatzeko. Erakunde batzuek ikusten dabe nor dagoen spam egiten, eta zerrendetan sartzen dabe. Informazio gehiago: <http://www.iec.csic.es/cryptonicon/spam/>.

HOAX

Mezu kateak, birusi edo beste edozeri buruzko guzurrezko oharra edo salaketak izaten dira, posta elektronikoa bidez


zabaltzen diranak. Jente askok birustzat hartzen ditue. Danak guzurrezkoak izaten dira. Askotan, helburua posta elektronikoa helbideak lortzea izaten da, ondoren spam egiteko. Beste batzutan txantxa edo iruzur bat baino ez da. Holango mezu bat heltzen bajatzen eta ahalik eta jentirik gehienari bialtzeko eskatzen badeutsu, guzurra izango da. Web orri baten sartzeko eskatzen badeutsu, badaezpadan ziurtatu behar da toki hori fidatzeko modukoa dala. Birusi buruzko mezurik hartzen bada, onena da birusen aurkako web orrietara joan, eta bertan informazioa batzea (Helbide hauetan dana azaltzen da: <http://www.rompecadenas.com.ar/hoaxes.htm>, <http://www.vsantivirus.com/hoaxes.htm>).

RELAY

Zerbitzari batek beste zerbitzari bat erabiltzen badau mezu bat bialtzeko, hau relay da, eta kontrolpean euki behar dogu. Spam dala eta posta elektronikoa zerbitzari guztiak kontrolatu egiten dira eta jakiten da nork bialtzen ditun mezuak, zein spammer erabili daitekeen spam egiteko. Zerbitzarien akatsez bialtzeak bialtzen dabe spam.

Zerbitzariak, normalean, bakarrik itxiten deutso bialtzen bere sarean dagonari, edo lehenengo ahalegina egin badozu zeure mezuak jasoten (Check before Send). Zeure mezuak Internetik edozein lekutatik jaso zeinkez. Posta elektronikoa, adibidez, Sarenetegaz daukazu, konektatzen zara eta Euskalteletik egiten badozu bialtzeko ahalegina, ez deutsu itxiko, baina jaso bai, eta jaso ostean itxiko jatzu bialtzen, ze jazotzerakoan sartu egin dozu e-mailen kodea.

Lagatzu euskera alkar-teak web orria barritu dau



Zamudioko euskera alkar-teak bere web orria barritzeko proiektua ipini dau martxan. Euskera informazioaren eta komunikazioaren teknologia barrietan egotea da proiektu honen helburua.

Web orri honetan Zamudioko euskerazko ondareari buruzko azterketak eta lanak digitalizatu dira, guztiak irakurtzeko modua euki daien. Bertan topau leiz Iñaki Gaminderen Zamudio Berbarik Berba lexiko-ikerketak, Beatriz Madariagaren Zamudioko Toponimia izeneko lana, Fogueraciones de Bizkaia del Siglo XVIII liburutik Zamudioko baserriei jagokezan atalak, eta Gorka Zaratek Irene Aslari batutako bertsoak, koplak eta kontuak. Aikor! aldizkaria be irakurri leike hileroko PDF formatuan.

Ganera, sarean euskeraz dagoen tresnen barri emoten jake herritarrei: webguneen bilatzaileak, euskerazko orrialdeekiko loturak, etab. Zamudioko euskara elkarteak prestatzen ditun ekitaldiak be web orri honetan iragarriko dira, alkar-teari buruzko informazioaz ganera.

Beste alde batetik, Lagatzu euskerazko eztabaida-foro bat eta albistegi informatiko bat hasi da prestatzen, Zamudiori, Txorierriri, euskerari eta euskal kulturari buruzko gaiak zabaltzeko eta eztabaidatzeko.

Proiektu honek Diputazioaren eta Eusko Jaurilaritzaren diru-laguntza izan dau.

FMC Forest, S.L.
Zamudio Parke
C/da de los Hornos, 10
48940 Zamudio (Bizkaia)
Tel: 945 21 11 44
Fax: 945 21 11 44

SUINOR COMPUTER S.L.
C/da de los Hornos, 10
48940 Zamudio (Bizkaia)
Tel: 945 21 11 44
Fax: 945 21 11 44

DERIO FRUTADENDA

Solube, 8
Tfnos: 945 77 12 52
DERIO

Berba lagun: Larrabetzuko

Taldeak bertoko hizkuntza lantzeko

Testua eta argazkiak: Itsaso Marina

Zalantzarik gabe, kafea edota poteak hartzeko ordua parada egokia da lagunekin goxo-goxo egoteko berbetan. Hau jakinda, Larrabetzuko Arrekikili euskara elkartekoei bertoko hizkuntza lantzeko aukera paregabea ere bazela bururatu zitzairen. Horrela, Berba Lagun taldea jaio zen pasa den martxoan. Proiektu horrek euskaldun zaharrak eta berriak batzen ditu ordu batez astero.

Azken urteotan, Larrabetzuko biztanle kopurua handitu egin da. Izan ere, asko izan dira herrian bizitzea erabaki dutenak, batzuk euskaraz ikasita, beste batzuk euskara ikasle izanik. Hori kontuan hartuta, Arrekikili elkartekoei, Berba Lagun taldea sortuz, bertoko euskara hobeto ulertzeko modu berezia otu zitzairen. "Ideia transmisio lana egitea da", azaltzen du Isabel Etxeberriak, proiektuaren arduradunetarikoko batek, "Hau da, herriko euskaldun zaharrak eta berriak, edo ondo ez dakitenak, elkartzea astean behin hemengo euskara lantzeko".

Ezagunen artean, proiektuaren berri ahoz aho zabalduz, Berba Lagun taldea martxan jarri zuten martxoan. Gaur egun, hogeita lagun, lau taldetan banatuta, biltzen dira astero, kafea hartu edo herritik paseotxo bat ematea aitzakiaz hartuta, euskaraz berba egiteko. "Jendea oso pozik dagoela ikusita, proiektuarekin jarraitzea ez ezik, zabaltea ere pentsatu dugu", esan digu Isabelek. Horretarako, Eskolako Guraso Elkartearen bidez hainbat gutun banandu dute. Horretaz gain, askoz kanpaina handiagoa prestatzen dabilta tal-



Larrabetzuko taldeak euskaldun zaharrak eta berriak batzen ditu

dearen berri Larrabetzuko txoko guztietara hel dadin. "Hemen proiektu bat dagoela eta, nahi izanez gero, parte hartu ahal duela jakinarazi nahi diogu herriko

jendeari", dio, "Batzuek biltzen garelada badakite, baina herritar gehiagok hurbildu beharko lukete eta hala espero dugu".



GARAIOLTZA, S.A.

PREBENTIBIAK BERTIKULTZAK

LEZAMA

ETXEREGITZAK, MERKADUNTZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN BIHARKO BERTIKULTZAK, LEHIAK HANIHAK,

ORDAINTZEKIDURIAZTASUN HANDIAK.

TF.: 94 455 50 19

Udako Kalea 2000, 101 (Leizaola)
Lezama (Bizkaia)



**GRUPO "COFISA" ASESORES
CONTABLE-FISCAL-LAJURDITA**

Luis Fernando Aguirre

GRUPO "COFISA" ASESORES
CONTABLE-FISCAL-LAJURDITA
C/ALFONSO XARRO 10, 48100 BILBAO (VIZCAYA)
TEL: 94 455 50 19
FAX: 94 455 50 20
WWW.COFIGISA.COM

zun euskara zabalduz

zuzeneko posibilitatea eskaintzen die herritarrei



Edozein toki, tarberna zein kale, aproposa da bertoko euskara lantzeko. Horrela pentsatzen dute Berba lagun taldekoek

Berba lagunak: "Ordubete oso polito pasatzen dugu"

Hamahiru urte zituelarik, Jakinde Larrabetzura ailegatu zen. "Egia esan, euskara existitu ere ez zen egiten niretzat", aitortzen du etxekoandreak, "Baina hemen ezinbestekoa zenez, ikasi baino beste erremediorik ez nuen izan". Eta horrela egin zuen, borondate handiz eta, apurka-apurka, herriko jendearengandik ikasiz. Orain, beste euskaldun zaharrek bezala, bera da berriei bertoko hizkuntza hobeto ulertzen laguntzen diena. "Baina, ez pentsa! Ni ere gauza piloa ikasten nabil", dio.

Herri berri batera heltzerakoan, oso inportantea da auzokideekin harremanetan jartzea. Horrela ulertu zuten, behintzat, Patriciak eta Iñakik. "Larrabetzun nire euskararekin gauza

sinpleak egitea, adibidez dendan edo tabernan, ia ezinezkoa zela ohartu nintzen", komentatzen du mutilak, "Hori dela eta, Berba Lagun proiektuan parte hartzea erabaki nuen", azaltzen du. Zailago izan zuen Patriciak, Kolonbiatik Urira ailegatu zenean duela bost urte. Izan ere, euskara batua ikasi behar izateaz gain, bertoko hizkerarekin ere topo egin zuen. "Nire ustez, guztiz beharrezkoa da hizkera ezagutzea ondo adaptatzeko eta, ondorioz, jendearekin harremanak eduki ahal izateko", esaten du. Hasierako arazoak gaindituta, pozik agertzen da. "Gainera, lagun berriak egiteko ere balio du Berba Lagun taldeak", gaineratzen du Iñakik, "Adibidez, tabernan taldekideren bat ikusiz gero,

baduzu aitzakia bere lagunekin poteoa egiteko eta, jakina!, euskara lantzeko".

Berba Lagun taldekideen artean oso giro jatorra sortu da. Elkarrekin dauden orduak ematen edo tabernan, haien gauzez hitz egiten. Ikasten da, bai, baina eskolaren zorrotasuna alde batera utzita. "Helburua da berriak euskaraz solte daitezela. Horretarako edozein gai jorratzen dugu", dio Maria Jesusek, beste euskaldun zahar batek. Hizkuntza aldetik, elkarri ulertzeko arazorik ez dutela ziurtatzen du. "Ordubete oso polito pasatzen dugu, benetan". Halaber, beste ekintza batzuk egiten dituzte: afariak, ikastaroak... "Masajekoa egin dugu eta orain sukaldaritza eta ardo-dastatze tailerrak prestatu gura ditugu", azaldu digute.

KARIN ARIKAZARREN
 KONTABILITATEA
 400 47 57 46
 BILBO

TXORIERRI
 Javi Antonio Soro
 TEMPA BETA LAKE PINTURA
 BILBO

GARRAJOLARIA
 Miguri Angel Irizar
 ANDRA MARL 19
 LARRABETZU
 94 452 60 20

ZARLINO MOTOR
 94 452 1616
 94 452 1848
 P.O. Zarzalegui
 P.O. 41, Zarzalegui
 48911 ZARZALEGUI
 BILBO

APERTURAS Y REPARACIONES
 APERTURAS Y REPARACIONES
 94 452 1616
APERTURAS Y REPARACIONES

TALLESES JUAN ANDRÉS
 94 452 1616
TALLESES JUAN ANDRÉS

Bertso zahar astunak, Lauroetan entzunak

Testua: Juan txu Bilbao

Euskera eta bertsozaritza, euskaldunak eta bertsozintza, oso aspaldikoak dira, ia ia betikoak. Orain urte batzuk oso modan egozan bertso idatziak eta kaleratu egiten ziran bertso-paperak. Euskaldunontzat edozein gertaera izaten da bertso-iturri aberatsa.

Hemen aurkezten doguzan bertsoak be horretarikoak dira, orain larogeita bost urte San Antontxu egunez gertatukoari buruz eginak. Nik neure izeko Jesusagandik

hartu dodaz. Izekoa jaio aurretik idatziak izan arren, gero bertso-paperen bidez ikasi eta oraindik buruz kantatzen ditu. Daukan memoria onari esker, gaur irakurri eta kantatzeko modua daukagu.

Egilea ez dakigu nor izan zan, ezta nortzuk eta nongoak ziran bertsoetan agertzen diran mutilak be; zortzi ziran kuardilakoak, baina eurotako biren barririk baino ez daukagu. Bata, Hilario Elgezabal

birlekoa. Horren arreba Simona Laurotan bizi izan zan Jesusaren nebeagaz eskonduta. Hilario hori gaztetatik ebilen lanean Deuston; eta bere lankideakaz joan ei zan Mungira. Bestea, bertsoetan agertzen dan moduan, taberneruaren lobeza zan.

Egoera hurrengo hau zan: Gazte taldea ondo eta merke bazkaltzeko asmoz joan zan Mungira San Antontxu egun batez, eta horra hor kontuak:

Mille urte ta bederatzireun
amazortziko urtean
gertuten gara zer jazo jakun
azalduteko ustean

Zazpi morrozko alkartu giñan
Deustuko erreka artean
bazkalduteko Mungi barruko
Jantoki zoli batean

Urtarrillaren amazortian
da San Antontxu egune
Mungian bertan bazkalduteko
gogoak emon euskune

Sopa garbantzu eta indabak
ez egoazen larregi
guzurrik ezin esan genduke
azea egon ugari

Okela be apur bat baño
etzan inondik agiri
ez genduan jan apur bat baiño
ez eudelako ekarri.

Zazpi giñean artean baiña
emen ez dago guzurrik
zortzigarrena agertu jakun
urdille bete gurarik.

Danok geunkean orixe baina
Dana izan zan alperrik
zortzironzako indaba artean
txorizotxu bat bakarrik

Gero gizedu, makailo eta
naste tomate gorrie
onen urrengo ekarri euskun
artxotxu baten erdie.

Guretzat behintzat urri egoan
urdailen betegarrie
Janak ementxe amaiten dire
auxe da egi egie.

Janak amaitu zirenean
emon euskuen buruek
artu egitea kafeak eta
txakur binako puruek.

Galleta terdi bakotxantzako
ta kopa bana koñaka
gaztaria eta ikopatz batzuk
guztie dago esanda.

Agur kafeak, agur puruek
agur jana ta edana
betor kontue tabernera
ori da emen bear dana.

Ikeratute gelditu giñen
entzunik beran esana
genkielako bazkari ori
merkeegia ezana

Geugez batera euki genduen
taberneruen lobeza
axeke euki eun beragaz danok
ara eroan gurea.

Ak uste eban guztiontzako
izango zala obea
baino azkenez ango kontuek
karuek urten daudea.

Bein jan ezkeru akikulekaz
ezin leikea konpondu
eskatutakoak pagaute oba
toki atatik aldendu.

Orretaraxe geure biotzak
egin zirean bigundu
eta bakotzak emon genduzen
mille ta eun zentimu.

Neska gazte bat etorri jakun
kitatuteko lekure
amakana lau errealeko
emon geuntsezan eskure.

A la barata esanagaitik
koitu ezkeru lekure
a la barata esan bai baña
merke zaleak ez dire.

Egun orretan merke zalea
ez zara izan Sotera
nai izan arren ezin koixu lei
guztie era batera.

Gauze karue ipinteagaz
dator norberan kaltera
karure baño askoz gehiago
joaten dire merkeru.

Gauze merkeak poztuten ditu
emakume eta gizonak
ortxe aditu bear dau beti
gauzea saldu bear dauanak

Gu bere gagoz gauza orretan
apur bet ikeratute
gagozelako kontu karuen
palukadea artute

Danok ilbili bearko dogu
gauzari begiraturte
ezin biziko garealako
gitxi eta karu pagaute.

Inor badago onek bertsook
gogotik entzun ezinik
datorrela berak nai badau
esan badugu guzurrik.

ENTZUTEGIA - ERLOJULARENDA

Ruben

Erlojulari Ruben Plaza, 5 - Tfn: 94 451 24 47
Bilbao (Bizkaia)

ERREKALAKI

LASAI



ERREKALAKI
ERLOJULARENDA
ERLOJULARENDA
ERLOJULARENDA
ERLOJULARENDA

Zatzenak:
• Errekalaki (Errekalaki)
• Errekalaki
• Errekalaki
• Errekalaki
• Errekalaki

Errekalakien artean
• Errekalaki (Errekalaki)
• Errekalaki (Errekalaki)
• Errekalaki (Errekalaki)
• Errekalaki (Errekalaki)



ERREKALAKI
ERREKALAKI

ERREKALAKI
ERREKALAKI
ERREKALAKI

ERREKALAKI

Euskarak mila doinu ditu Bordelen

Lau urte joan dira jada lehenengoz Bordele agurtu nebanetik, bi bertan euskara irakasten hasi nintzanetik. Euskara? Bordelen? Pentsatuko dozue askok, harrituta. Bai ba. Atzerrian badago Europako berbeta zaharrenaz zer edo zer jakin gura dauanik.

60.000 unibertsitari irensten dabez egunero bost kilometrotan zehar hedatzen diran fakultate itzelek. Lau dira sail nagusiak: Bordeaux 1, zientzia eta teknologietakoa; Bordeaux 2, medikuntza eta biologiakoa –Victor Segalen–; Bordeaux 3, letretakoa –Michel de Montaigne–; eta Bordeaux 4, zuzenbidekoa –Montesquieu–. Fakultateez gainera, klase guztietako kirol instalazioak, ikasleentzako egoitzak, jatetxeak eta supermerkatuak be badagoz, benetako hiri bateko antzera. Batetik bestera joateko, zelan ez, derrigorrezkoa da autobusa hartzea, oinez ordubete baino gehiago beharko geunkelako unibertsitatea alderik alde zeharkatzen.

Europako campusik handiena da berau, eta, halan izanik, nahiko dogu autobus bakarra barruak husten ikustea giza-



Bordeleko Unibertsitateko ikuspegia.

mapamundia osatzeko. Munduko ertz, txoko, bazter guztietatik etorrikoak. Arraza desberdinen cocktail-a begi lausogarria da lehenengoz bertara doan edonorentzat.

Itsaso harrotu honetako irla 40 ikasle dira. Harrigarriro, euskara azentu ingeles, aleman, norvegiar eta batez be frantsesez

janzten dabe. Euskara mozorrotua. Baina ahoskera arrotzez jositako maskararen atzean, benetako jakingura dago, berba bidez sustraietara heltzeko desira. Eta ez deusie inork EGARik eskatu.

Testua eta argazkia: Atotz Goikoetxea

“LAIA HOTEL MUSEOA”



Parke teknologikoa

Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemei esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzaririk berriztaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atsedean hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasajeko koltxonetak.

Aurreko galderaren erantzuna: bularreko minbizia detektatzeko kanpaina 1937tik 1953 urtera bitartean jaiotako emakumei zuzenduta dago.

Irabazlea: Aritz Llarena



LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria haxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Noiz pasatuko da aurtengo korrika Txorierritik?

Bidali erantzunak (zuen telefonoarekin), urtarrilaren 20a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Berakatz sopa

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 3 berakatz atal
- Ogi azala
- Arrautza bat
- Piper siku bi
- Oliba orioa
- Litro eta erdi ur
- Gatza

Bota kazuela batera orio txorrostada bat (bost koilarakada gitxi gorabehera); jarraian berakatzak bota eta gorritzen direnean, ogi azala txikituta, plater bete inguru. Dana nahastau hiru-lau minutuan eta eragin zurezko koilara batez. Aurretik ura irakiten euki beste lapiko baten eta ganera bota. Piperrak garbitu, haziak kenduta, eta bota kazuelara. Hau euki irakiten ordubetea gitxi gorabehera. Azkenean, arrautza bota eta eragin. Gatza norbere gustura egin.



Mari Tere Onaindia

Olagarro eta txipiroi marmita

Osagaiak (4 lagunentzat)

Olagarroa prestatzeko:

- 2 kg olagarro
- Kipula gorri bat
- 500 gr patata berri
- 5 cl oliba olio
- 2 gr Schouan piperbeltz
- 10 gr apio (berdelejas)
- 3 gr gatz keztatu

Txipiroiak prestatzeko:

- 200 gr txipiroi
- 2 dl ur
- 2 gr gatz keztatu
- 4 azafrai hari
- 4 gr apoperrexil edo perifollo
- 4 gr tipulin
- 2 gr sesamo beltz keztatu
- 5 cl oliba-olio birjina

Prestatzeko modua

Patatak zuritu eta kraskatu behar dira, barazkiak laurdenetan zatitu eta olagarroa 100 gramoko zatitan moztu.

Altzairu herdoilgaitzeko ontzi batean barazkiak oliotan salteatuko dira eta olagarroa eta gatz keztatua gehitu. Irakiten hasten denean, estali eta su epeletan jarri behar da 40 minutuan. Olagarroa gorde, eta patata eta ur egosia erabiliz salda egin behar da irabiagailuz.

Egositako 200 gr patatak gorde eta zartagin batean krema bat egin behar da. Ura, gatz keztatua eta azafraia 20 minutuan egosi ondoren, txipiroi-juliana galdatu behar da, oso-oso fin.

Aurkezteko modua:

Aldez aurretik berotutako zopa-ontzi batean, krema patata eta txipiroiak jarri eta olagarro zatiekin inguratuko dira.

Gero, 1 dl olagarro-saldarekin lagundu eta sesamoa eta belar usaintsuak botako dira. Azkenik, oliba olio zorrotzarekin dekoratu behar da.



Gaminiz jatetxea (Zamudio).

Kudeaketa eta Sorkerako
Birziklaketako Zentro Aurreratua



SOGECAR

Torrearragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 844 577 177 - Faxa: 844 577 618

Tratamendu legezkoak

-Erabilitako ulioak

-Agortutako taladrinak

Disolbatzaileak

Automozio

hondakinon kudeaketa osoa

Vértigo

MANAGERIA DE ENFERMERIA Y FISIOTERAPIA

EN DOBUTZEN ANIZKO ASUNTUAN EN ANIZKO BUI BAI OI

Enfermería y Fisioterapia
En Dobutzen Anizko Asuntuan
En Anizko Bui Bai Oi

LIBURUAK

Haur saila

"Iri eta barre"

Joxantonio Ormazabal

Jon Zabaleta

Joxantonio Ormazabalen hitz korapiloak, igarkizunak eta Jon Zabaletaren marrazkiak jolasera gonbidatzen gaitue.

Nagusien saila

"Paperezko hegazkina"

Lutxo Egia

Galder eta Euskal Herria dira eleberri honen protagonistak. Galder Londresera joan da, Gernikako bonbardaketaren lekuko izan zan kazetari ingeles baten bila. Gerra garaiko barriak eta gaur egun gertatzen ari danaren oihartzunak kontatuko deuskuz.

DISKOAK

"Zoramena"

Gatibu

Rock esparruetan mugitzen dan talde honen diskarako zenbait abeslari hartu dabe laguntzaile ("Extremoduro" taldeko Robe eta "Platero y Tú" taldeko Fito). Gernikako euskerea erabiltzen dabe.

"Kinki"

Skunk

Talde barruan aldaketa batzuk egin ondoren, "Kinki" Belgikan grabatutako lana da. Euren 5. disko honetan ska, punk eta hardcore doinu eta konposizio ondo landuak eskaintzen deuskuez.

DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Oraingo honetan ere 6 ezberdintasun aurkitu behar dituzu argazki bion artean. Badakizu zein den benetakoa argazkia eta non dagoen baserria?





Umorea

Elkarri tiroka

- Bi mexikar elkartzen dira, eta...
- Ale manito, nola duzu izena?
 - Ni? Ni naiz Pepe Galleta
 - Besteak hartzen du pistola, eta Pummm!
 - Hemendik aurrera Pepe Rosquilla.

SOLUZIOA



Kirola

Sondika

“Sondikako Udala” futbito txapelketa. Otsailaren 3an hasita, partidu guztiak zapatu arrastietan eta domeka goizetan jokatu dira Goronda Beko kiroldegian.

Txotxongiloak

Sondika

“Mac Muak”. Otsailaren 28an, 17:30etan, liburutegian. Behi bi's taldearen eskutik.

Irteerak

Eurodisney. Apirilaren 16tik 21era arte. **Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko Udalek antolatuta.** Izena emateko epea: otsailaren 3tik 17ra, herrietako liburutegietan.


Lezama

Arantzazu Zabalantzetik igoera. Otsailaren 9an, 8:30etan. Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

Txiki-parkea. Martxoaren 3an, goizean, Izena emateko epea: otsailaren 3tik 25era bitartean, liburutegian.

Eskiatzera. 12 eta 18 urte bitartekoen zat. Martxoaren 6an, Alto Campoora. Izena emateko epea: otsailaren 3tik 27ra bitartean, liburutegian.

Eskiatzera. Martxoaren 7tik 9ra arte, Candanchura. Izena emateko epea: otsailaren 3tik 25era bitartean, liburutegian.



Zamudio

Eskiatzera. Apirilaren 17tik 21era bitartean. Izena eman behar da kultur eragilearen bulegoan.

Bost eguneko irteera. Apirilaren 22tik 27ra arte. Izena eman behar da kultur eragilearen bulegoan.

Aratusteak

Loiu

Aratusteak. Martxoaren 4an, martitzenez, arrastian, mozorro jai eta txitxiburduntzia egingo dira.

Lezama

Aratusteak eskolan. Otsailaren 28an, goizean, Lezamako eskolak antolatuta.

Aratusteak. Otsailaren 28an, 10:00etan, artista lehiaketa egongo da plazan. 21:00etan herri afaria, pilotalekuan. 22:30etan, areto-dantza emanaldia (Lezamako ikasleen eskutik) eta pantomima ikuskizuna (Javier Mañónen eskutik) pilotalekuan. Animatzeko diskoteka.

Ikastaroak

Loiu

Nagusientzako informatika. Otsailaren hasiko da. Izena eman behar da urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra bitartean, 9:00etatik 13:30etara, udal bulegotan.

Zamudio

Estresaren prebentziorako ikastaroa. Otsailaren 19tik apirilaren 23ra bitartean, eguaztenetan 19:30etatik 21:30etara, dorretxean. Izen ematea udal bulegoetan.

Argazkigintza. Zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara, dorretxean.

Yoga. Astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara, eskolan.

Tai-chi. Barikuetan, 18:00etatik 20:00etara, eskolan

Aratusteetarako makillajea sortzeko ikastaroa. Barikuetan, 18:00etatik 20:00etara, dorretxean. Izena otsailaren 4a baino lehenago eman behar da, Udaletxean.

Agate Deuna

Lezama

Umentzako kalejira. Otsailaren 4an, goizean. Lezamako eskolak antolatuta.

Kalejira. Otsailaren 4an, 19:00etan, Ekidazu abesbatzak antolatuta.



Filmak eta antzerkia

Lezama

“Scooby-Doo”, otsailaren 7an; “Hercules eta Xena”, otsailaren 14an, eta “Aventuras en Alaska”, otsailaren 21ean. 17:30etan, Kultur Aretoan.

Zamudio

“La guerra de los clones”, otsailaren 7an; “El caballero negro”, otsailaren 14an; “Las supernenas”, otsailaren 21ean, eta “Aventuras en Alaska”, otsailaren 28an, 19:30etan, dorretxean.

Umorezko antzerkia. “Los babiosos” antzezlan Oliver Producciones enpresaren eskutik. Otsailaren 22an, 20:00etan, dorretxean. Sarrera dohainik.

Erakusketak

Zamudio

Emakumea eta kirola Bizkaian. Otsailaren 11tik 21era bitartean, dorretxean. Astelehenetik barikura, 16:30etatik 20:30etara, zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

Bestelakoak

Loiu

Sahararekin elkartasunezko karabana. Urtarrilaren 30 eta 31n, 9:00etatik 13:30etara, Udaletxean, eta 16:30etatik 20:00etara, liburutegian.

Sondika

Zuhaitz eguna. 11:00etatik 14:00etara Goronda Beko kiroldegian. Tailerrak eta musika, 16:00etatik 18:30etara, umeentzako parkean, Kar Kar taldearen eskutik.



10€ ren

**truke metro
sinbolikoa
erosi eta lagun
lezalozu korrika 13ri
bidea urrats
sendoz egiten.**

losta nore pira!

Izan zaitez

korrika

LAGUNTZAILEA

**...eta gainera aprobetxa itzazu
txartelak, Euskal Herri osoan,
emango dizkizun abantailak**

Onura guztiak aprobetxatu
ahal izateko bete itzazu oniek
eskatzen dituen datuak eta
korrika laguntzaile txartela
jasoko duzu.



BBK txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein BBK txartelekin eta, hilerro, ilzeleoko opariak irabazi ahal izango dituzu.

bbk 